



ARGIA



M15 ETA M22 BOZAK

Herriko Kontseiluak eta Euskal Elkargoa hautatzeko hitzordua

22-27. orriak

#2.680 | 2020 / 03 / 08 | 3,90 €




**Poliziak oliobidea
defendatu, autoktonoek
trenbideak moztu**

10 | KANADA



**Ollakarizketako
fusilatuen
desobiratzen 40 urte**

32 | HISTORIA



**Dokumentalak
ulertzeko bestelako
modu bat**

44 | PUNTO DE VISTA

Amul been nit ku leegalul



KAMISETA
SALGAI!
15€*

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moye Doole** elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



JERTSEAK
4 KOLORETAN
—
24€*



**PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT**
LIBURUA
—
14€*



POLTSAK
—
8€*

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
XABIER SAGASTA

Iritziak

- 17 | ASIER BLAS MENDOZA
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | KOLDO ALDALUR
- 19 | EDU ZELAIETA ANTIA
- 20 | AMANCAY GAZTAÑAGA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
AINARA CASTELLANOS RUBIO
- 54 | BERANDUEGI



MIKEL GARCIA

28 | FILOSOFIA IRAKASLEAREKIN
mintzatu da Mikel Garcia kazetaria. Filosofia ikasgeletan aplikatzearen onurak azaldu dizkio; galderak planteatzea ohiko jarrera izan beharko luke eskolan, ez ikasgai bakarraren kontua.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Kanadako autoktonoak barrikadetan, haien lurren eta denon biziaren defentsan

Jenofa Berhokoirigoin

12 | ITXURI OLLO

"Harreman kolonizatzaileak ditugu etorkinekin"

Reyes Ilintxeta

22 | POLITIKA

Herriko Etxeen osaketa erabakiko da martxoan

Jenofa Berhokoirigoin

32 | HISTORIA

Ollakarizketako fusilatua: Lurrak garrasika jarraitzen du

Urko Apaolaza Avila

36 | HEZKUNTZA NAFARROAN

Castejon, PAI programaren atzaparretan

Xabier Letona

44 | KULTURA

Punto de Vista Festibala: errealitatearen bidez kontatutako istorioak

Ainhoa Gutiérrez del Pozo

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Turner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandiandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosola, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa

Xalbardin baita. 64122 Urruñe

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina

31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



NORABIDEAZ

Lilatoia Donostian. 5.500 emakume inguru ailegatu ziren helmugara. Arrakastatsua da lasterketa. Duela 30 urte, sorreran, ezarritako helburuak betetzen ari dira poliki-poliki: emakumeak kalean kirola egiten ari dira. Emakume kirolaria ez da duela 30 urteko *rara avis* hura. Urteroko hitzordu izatea lortu du kirolaren jaiak. Aurten, hainbat ahotsek lilatoi feministagoa aldarrikatu du. M8 etorri zaigu gogora. Jendea mobilizatu bai, kontzientzia feminista zalantzan.

📷 JOSEBA PARRON / IRUTXULOKO HITZA

📍 ONINTZA IRURETA AZKUNE



LILATON

El. Lilaton
3854
EL DIARIO VASCO

ZALDIBARKO AMIANTO ISURIAK 2012AN

Ingurumen Sailak emandako azalpenek herren egiten dute

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Verter Recycling 2002 enpresa 2012an hasi zen amiantodun hondakinak hartzen Zaldibarko zabor-tegian. Garai hartan Eusko Jaurlaritzaren 2007ko Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) zuen, baina dokumentu hartan ez zen agertzen baimendutako hondakinen zerrendan “amiantoa duten eraikuntzako materialak”. Europako hondakinen zerrendan 17 06 05 LER kodea du horrek.

2013an aldatu eta berritu zion Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak Ingurumen Baimen Bateratua enpresari, eta baimen horretan, bai, agertzen dira amiantodun hondakinak baimendutakoen zerrendan. Gardentasunaz esaten du zerbait 2013ko IBBa, dokumentu publikoa, herritarron eskura ez egoteak. ARGIAK eskuratu duela ikusi dugu amiantoa hartzeko baimena 2013ko IBBak jaso zuela eta beraz, 2012an baimenez kanpo isuri zituela hondakin arriskutsu horiek Verterrek.

Albiste gaztelerara itzulita argitaratu du *El Saltok*, ARGIArekin elkarlanean aritzen den hedabide independenteak. Eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak Twitter bidez informazio nahasgarria zabalduz erantzun du esanaz 2007ko Ingurumen Baimen Bateratuak, lehenbiziko hark, jasotzen zuela amiantoa hartzeko baimena. Horretarako, hondakinen Europako legediaren irakurketa okerra zabaldu du Ingurumen Sailak eta ARGIAko kazetariak LER kodea zer den eta nola irakurtzen den azaldu behar izan diote Ingurumen Sailari, informazio hori gezurtatuz.

Ingurumen Saila ARGIArekin harremanetan jarri da, eta argudio trukearen ostean, beste azalpen hau eman du idatziz, 2012an enpresak amiantodun hondakinak hartzeko baimena bazuela esateko: enpresak Jaurlaritzari eskaera egin ziola 2011ko apirilean idatziz, adieraziz hondakin arriskutsu hori hartzen hastea ez zela “funtsezko aldaketa”. Administrazioak hilabetean ez zionez erantzunik eman, horretarako baimena eskuratu



DANI BLANCO

omen zuen. *Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 16/2002 Legea*-ren barruan dago aipatutako prozedura hori, zehazki 10.2 artikuluan. Baina Ingurumen Sailak berak aipatzen duen lege eta artikulua zehatzak ondorengoak dio: aldaketa bat “funtsezkoa” dela justifikatzeko motiboetako bat dela, hain justu, “sustantzia arriskutsuak lehen aldiz sartzea edo hauen erabilera handitzea”. Amiantoa hondakin arriskutsua da Europako legediaren arabera; horregatik du * ikurra 17 06 05* zenbakiaren ondoan.

Ingurumen Sailak frogatzen duen legearen arabera, “funtsezko aldaketa” da amiantoaren moduko hondakin arriskutsu bat jasotzen hastea eta “funtsezko aldaketa” batek Ingurumen Baimen Bateratua berritzea eskatzen du, baita berau publiko egitea eta herritarrei alegazioak egiteko tartea zabaltzea ere. Hau guztia ez zen egin 2013ko IBBarekin: artikulua hasieran azaldu dugun moduan, oraindik ez dago herritarren eskura Eusko Jaurlaritzaren webgunean.

Hedabide honek zuzenean kontsultatu ditu noizbait Ingurumen Sailean

ardura politikoak eta teknikoak izan dituzten pertsonak eta denek aipatu dute beste LER kode bat duen hondakin mota bat hartu ahal izateko lehenik Ingurumen Baimen Bateratuak jaso behar duela aldaketa hori, lehenago ezin dela jasotzen hasi, isiltasun administratibo huts baten bidez. Ingurumen Sailari galdetuta, honek erantzun du “praktika arrunta” izan dela horrela ontzat ematea hondakin berriak, IBBan aldaketak egitera itxaron gabe.

Galdera berriak eragin ditu azken arrazoietak: zergatik esan zuen Ingurumen Sailak hasieran gauza bat eta gero bestea? 2012an amiantoa baime-nik gabe isuri zutela estaltzeko beste argudio faltsu bat ote da? Benetan horrela baimendu ote du egungo Ingurumen Sailak zein hondakin mota kudeatu azpiegitura bakoitzean? Hala bada, gainerako zabortegeiek zein hondakin hartu dituzte beren Ingurumen Baimen Bateratuetan ageri ez direnak? Zer ondorio lituzke, frogatuko balitz 2012an baimenik gabe isuri zituela enpresak amiantodun hondakinak?

Erromatar




ARITZ GALARRAGA

Beste deskubrimendu bat: erromatarrak. Tira, deskubrimendu, aspalditik ezagutzen ditut erromatarrak, Kaligula, Pontzio Pilatos, Coronavirus bera, *Asterix Italian* komikiko auriga; baina orain berriz aurkitu ditut, izan dut irudipen, argialdi, epifania moduko bat. Sarri xamar joan bainaiz azkenaldian Irungo Oiasso erromatar museora, hitzaldi, irakurle klub, noski museoa bera bisitatzera. Odolaren deia balitz bezala. Pentsa, Ama Xantalengo nekropolian malkoa atera zitzaidan ia.

Badakit fama txarra dutela erromatarrek gurean, galiar menderakaitz batzuen gisara ikusi dugula gure burua urte luzeetan. Susmoa dut Irungo museo hori ere ez dela gehiegi famatzen, hain zuzen, erromatarrek konkistatu gabeko herriaren mitoa ez gehiegi zipriztintzeko. Ez ote den harro egoteko modukoa, ordea: gu ere Erromaren parte izan ginen, guk ere parte hartu genuen gizateriaren aurrerapenean. Eszeptiko jarraitzen duzu, eta galdetzen: baina, zer ekarri zuten erromatarrek? Aiako Harriko meategien ustiaketa. Ah, bai, hori ekarri zuten. Eta Bidasoa zeharkatzen zuen zubi bat. Ados, baina horretaz aparte? Higer lurmuturreko ainguratokia. Ahaztu gabe Oiasso museoaren ondoan dauden bainu publikoak. Baina meategi, zubi, ainguratoki, terma, nekropoliez gain, zer gehiago ekarri zuten erromatarrek? Ardoa, lagunok, oi ardoa.

Egia esan, aspalditik uste izan dut euskaldun erromatartuak eta ez erromatartuak daudela. Eta bada bando batean kokatzeko garaia. Batzuek lasai asko egiten badute garai hartako baskoien eta gaurko euskaldunen arteko lotura, zergatik ez dut esango nik Oiasson, egungo Irunen alegia, etxe ondoan, bizi izan ziren erromatar haien ondorengoa naizela. Irekitzen den zerumuga izugarria baita. Hasteko, tradizio latindar osoa litzateke gure, Horazio, Katulo, Ovidio, Boezio adiskidea barne. Nire burua aldarrikatzen dut, beraz, erromatar, gurutziltzatuko banaute ere. ●



“ISUNEZ ITO NAHI DITUZTE MUGIMENDU ETA PROTESTA HERRITARRAK”

GARAZI CASTAÑO, BARRASKILO OPERAZIOAN PARTE HARTZEAGATIK ZIGORTUA

Euskal Tsunamiak antolatu zuen Barraskilo Operazioan parte hartzeagatik Ertzaintzaren isuna jaso duen herritarretako bat da: 500 euroko isuna eta gidabaimenaren sei puntuko zigorra. “Herri katalanarekiko elkartasuna adierazteko modua izan zen eta protestak ez zuen arriskurik sortu, inondik inora; giro alai eta lasaian garatu zen ekimena. Trafiko isunaz harago, horren atzean dagoen erabaki politikoa baloratu behar da: isunez ito nahi dituzte mugimendu eta protesta herritarrak.” 2020/02/20



Kapitalismoaren hondakinak



JUAN MARI ARREGI

Zaldibarko tragedia ez da izan “hondamendi naturala, aparteko zer-bait, ezohikoa, aurretik jakitea erabat ezinezkoa”, Iñigo Urkullu lehen-dakariak azaldu duen gisan. Sistema baten ondorioa izan da, kapitalista eta basatia, zaborren kudeaketan etekin handiena bilatzen duena. Nahikoa da gogoratzea Verter Recycling enpresak, orbain horren kudeatzaileak, ia 9 milioi euro irabazi zituela azken sei urteetan 2018ra arte. Eta hori guztia administrazioaren konplizitatearekin, eskuak garbitzeko arlo pribatuaren gain uzten baitu osasun publikoko arazo bat dena, zabortegiaren arazoa.

Zaldibarko hondakin horiek, beraz, kapitalismoarenak dira. Verter Recycling oharturik zegoen zabortegian pitzadurak zeudela, eta ez zuen ezer egin konpontzeko. Ondorioz bi langile lurperatuta geratu dira eta azkenaldiko ingurumen-hondamendi handiena eragin dute. Baina hondakin horiek administrazio kapitalista batenak ere badira, ez baitu zabortegi horren segurtasuna kontrolatu, eta arriskuan jarri baitu amianto hiltzailearen erdian erreskatara joan ziren langile eta ertzainen bizitza.

Lurperatutako langileen senideek salatzen duten bezala, “zikoizkeriak lotu ditu eskrupulurik gabeko gizonak sorturiko enpresa bat eta sigla ustele lotutako politikari batzuk, eta zoragarri ulertu dute elkar”. Logikoa da esatea beraien-tzat “hilketa bat” dela eta eskuak “odolez zikinduta” dituztela.

Kapitalismo bera da, espainiar gobernu frankistaren eskutik 1976ko martxoaren 3an Gasteizen borrokan ari ziren bost langile hil zituena, greba eta asanbladak arma gisa hartuta bizitza duina lortzeko hitzarmen baten defentsan ari baitziren. Bi kasuetan, erantzukizunak erabakitzeke daude. Eta pre-miazkoa da hori. ●



EITB

Koronabirusa Euskal Herrian da

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Astekari hau ixteko unean, martxoaren 2 goizean, honakoak dira koronabirusaren datuak: hamar dira kutsatuak Euskal Herrian eta nazioartean 87.700 kutsatuen zifra gainditu du izurriteak. Munduko 60 herrialde baino gehiagotan zehar zabaldu da eta 2.900 hildako inguru utzi ditu. Txina, gaixotasunaren sorlekua izanik, kutsatu gehien dituen herrialdea da: 80.000 inguru daude bertan. Bere mugetatik kanpo 7.700etik gora daude, baina Imperial College London unibertsitateko gaixotasun infekziosoetako adituek adierazi dute munduan dauden kasuen bi heren detektatu gabe daudela. Hau da, eritasuna hedatzeko bide berri asko sor daitezkeela.

Momentuz, Txinatik kanpo kutsatu gehien dituzten herrialdeak Hego Korea, Japonia eta Italia dira. Iraneko kasua aipagarria da, datuen arteko kontraesanak egon baitira. Amerikara ere heldu da. Iparraldean aurkitu dira kasu gehien, Estatu Batuetan eta Kanadan. Hego eta Erdialdeko Amerikan, dena den, dengea da mehatxu nagusia, historiako izurriterik larriena bizitzen ari baitira.

LASAITASUNERAKO DEIA

Hilkortasun maila txikia duen birusa dela errepikatu dute adituek behin eta berriz eta euskal administrazioek ere lasaitasuna helarazi nahi izan diete herritarrei. Koronabirusaren hedatzea saihesteko hainbat prebentzio neurri ere garatzen ari dira. Gehienak gripe arruntarekin hartzen edo gomendatzen diren neurrien berdintsuak dira: eskuak garbitzea, zapiak ez berrerabiltzea edo ez tula egitean ahoa eta sudurra estaltzea, besteak beste. Maskararen erabilera ez dela beharrezkoa ziurtatu dute, eta garrantzizkoena garbitasuna dela, “gripe arruntarekin bezala”. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak eskatu dute susmoren bat izanez gero etxean geratzeko. Abisua emateko telefonoak ere eman dituzte: 900 203 050 EAEn eta 112 Nafarroan.

Hala ere, mundu mailan izua zabaldu da, eta koronabirusak eragin handia izan du ez soilik jendearen osasunean, baita herrialdeetako ekonomian ere. Espainiako Estatuaren kasuan, Ixek 35ak 2011tik izan duen atzerapenik handiena izan du aurreko astean. Asiako burtsak ere joan diren bi urteetako egoerarik baxuena izan du, eta AEBetako Wall Streetek ere %4 baino gehiagoko atzeraldia jasan du. ●

ERRAUSTEGIA GERATZEA ESKATU DUTE

DONOSTIA. Otsailaren 29an eragile ugari Donostian deitutako manifestazioak milaka herritar bildu ditu, Zubietan ofizialki piztear diren erraustegia geratzea aldarri. Zaldibarko hondamendiaren ostean eta Zubietako erraustegia piztear dela, larrialdi egoeran gaudela nabarmendu dute antolatzaileek, “ondorio ekonomikoak, ekologikoak eta osasunezkoak guk geuk pairatuko ditugula argi geratu delako”.



@ALTERNATIBAGIP

SUTEAK 5,8 milioi

hektarea baino gehiago suntsitu dituzte Australian 2019 amaieran hasitako suteek, herrialdeko basoen %20. Urteetan nabaritu da hondamendia.

Datuak are kezagarriagoak direla diote adituek. Tasmania adibidez ez dute kontuan hartu ikerketa horretan.



N-121-A errepiderako soluzioak nahi dituzte

 ERRAN.EUS

Eskualdeko alkateen deiarri erantzunez, otsailaren 28 iluntzean jendetza bildu da Beran, errepidea moztu eta nazioarteko garraioan dabiltzan kamioiak N-121-A errepidetik desbideratzea eskatzeko.

ESKAERA


Errepide horretan ematen den istripu kopurua gutxitzeko eta segurtasuna handitzeko helburuz egin diote eskaera Nafarroako Gobernuari. “Betegarria” dela azpimarratu dute alkateek, dagoeneko badirelako antzeko desbideratzeak indarrean ditzuten errepide batzuk Katalunian eta Errioxan.

MOBILIZAZIO GEHIAGO

“Epe erdira mugimendua antolatzeke asmoa dugu”, adierazi du Baztango Joseba Otondok eta Doneztebeko Xanti Utergak, berriz, “aldaketarik ez badago, bertze ekintza batzuk izanen direla” baieztatu du. Berako Aitor Elexpururen hitzetan, “gure eskakizunak agenda politikoan egon daitezen” errepide mozketa gehiago, hitzaldiak eta hainbat kanpaina egiteko asmoa dute. Hurrengo errepide mozketa datorren astean, martxoaren 13an, Uhartan eginen dutela iragarri dute.



EUSKAL PRESOK. Esklerosi anizkoitza duen Ibon Fernandez Iradi preso lasartearra espetxean mantentzearen alde egin du beste behin Frantziako Justiziak. Duela 9 urte diagnostikatu zioten gaitza eta larri dagoen arren, fiskalaren eraginpean behin eta berri bota dute atzera aske uzteko eskaera.



LAN GATAZKA. EHUK eta Hezkuntza Sailak azpikontratatuak garbitzaileek bost asteke greba abiatu dute. Eusko Jaurlari-tzaren garbiketaren langileekin soldata parekatzea eta hitzarmenaren negoziazioari “edukiekin” berrekitea eskatzen dute. Lan-zamak jasanezinak direla salatu dute.



KONPRESAK ETA TANPOIAK doakoak izango dira Eskozian, parlamentuak hala onartuta. Erabaki hori hartu duen lehenbiziko herrialdea da. Produktuok doan eskuratu ahal izango dira leku publiko batzuetan, osasun zentro eta farmazietan adibidez. Urtean 29 milioi euro bideratuko ditu estatuak.

KANADAKO AUTOKTONOAK BARRIKADETAN, HAIEN LURREN ETA DENON BIZIAREN DEFENTSAN

Geroz eta blokeatuagoa du Kanadak ekonomia. Barrikadak montaturik, otsailaren 6az geroztik dabilta Wet´Suwet´En Lehen Nazioeko herritarrak mendebaldetik ekialdera doan trenbidea blokeatzen. Egunez egun, beste Lehen Nazioetakoak zein ekologistak lotu dira borrokari eta gaurko egunean portu, autobide zein trenbide, hamarnaka blokeo egiten ari dira herri guztian zehar. Oinarrian, haien lurretatik pasa nahi dieten oliobide bat. Baina, askoz zabalagoa da jokoan dagoena.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Pazientzia eta lapurtu daitezkeen lurrrak bukatu dira. Aski da. TC Energy enpresa pribatuaren eta Kanadako zein Columbia Britainiarren (BC) Estatuaren diru gosea autoktonoen eskubideak baino lehen jartzen duzueneguz, diru iturria blokeatuko dizuegu. Horra BC probintzian kokaturiko Wet´Suwet´En Lehen Nazioak ozen dioena. Otsailaren 6az geroztik dabilta Kanada ekialdea mendebaldeari lotzen dion bide nagusia barrikada bidez moztuz, pertsonen zein salgaien garraioak blokeatuz. Ehundaka tren ezeztaturik, ehundaka trengidari langabezian, milaka bidaiari mugitu ezinean eta ondorioak zabalduz doaz ekonomiaren beste sektoreetara –nekezaritzita, turismoa zein industria–. “Kolonialismoaren sinboloa da burdin-bidea. Ingeles kolonizatzaileek Lehen Nazioak haien lurrez desjabetu ahal izan zituzten trenbideari esker”. Raphael Picard inuitaren hitzak dira.

Tentsio handiko egoera izanki, baliteke erreportaia irakurtzerakoan poliziak barrikadak desegin izana, baina idazterakoan, jakin orduz ordu mugimendua gogortuz doala. Kanadako –edo autoktonoen historiari aitortza eginez *Kanatako*, 1535ean Jacques Cartier kolonizatzailea iritsi zenean *kanatara* edo irokes hizkuntzan *herrixkara* bideratu zutelako eta hortik omen datorrelako Kanada–, beste Lehen Nazio parrasta bat lotu da borrokari. Blokeoen mapa eguneratzen dabil www.lundi.am webgune independenteari segi, ekialdetik mendebaldera 26 barrikada daude trenbideetan eta

horiei gehitu behar zaizkie portuetan altxaturiko beste bost barrikada eta autobideetan dauden beste 16. Mugimendua irudikatzea nahiko simple da: jarri puntu bat, hots barrikada bat mendebaldeko kostaldean den Vancouverreko portuan, segi ekialderuntz puntuz-puntu, marra zuzen bat marraztuz ekialdeko Eskozia Berriko Halifaxeko porturaino. Bidea erabat moztua dute trenek.

TC Energy enpresak eraiki nahi duen Coastal GasLink Pipeline Ltd gasbidea dugu gatazkaren oinarrian. Eguneroko 700.000 litro gas natural garraiatuko lituzke 670 kilometroko bide horretatik, helmugan dagoen Kitimat herri ttipiko metano geltokitik guztia esportatzeko. Bertako autoktonoen desadostasunaren gainetik pasaz, egitasmo hori egin nahian dabilta, obrak 2019 hastapean hasi zituztenetik.

KAPITALISMOA ETA KOLONIALISMOA, ESKUZ-ESKU

Azkenean, Lehen Nazioen eskubideen errespetuaren auzia da mahai gainean dagoena. TC Energy-k dio buruen batzarren adostasuna lortu duela eta hori erranik ez dabil gezurretan. Baina kontua da autoktonoen antolaketa beste botere gune bat dagoela horiek baino gorago: etorkizko buruak –agintea belau-naldi batetik hurrengoari oinordetzan pasatzen dioten buruzagiak–. Justuki, Wet´Suwet´En lurretako zortzi etorkizko buruak daude egitasmoaren kontra. Buruen batzarrek haien erreserben eremuan autoritate legala baldin badute

ere, etorkizko buruek dute azken hitza lurralde historikoan. Hau da, bertako erreserbek 22 kilometro koadro biltzen badituzte ere, orotara 58.000 kilometro koadro ditu Wet´Suwet´En eremuak. Akordio bidez kolonoei inoiz eman gabeko 58.000 kilometro koadro.

Gatazka horri dagokionez, “zuzenbide arauen errespetua” eskatzen dabil Justin Trudeau Kanadako lehen ministroa. Hori zehazterakoan barrikaden desegiteaz ari da, ez da Lehen Nazioen eskubideez ari. Pam Palmater abokatu mi´kmakak ondokoa erantzun dio: “Arauk idazten dituztenen eskubideez ari da, ez da zuzenbide arauetz ari”. Zuzenbide arauetz so eginez gero, hor dagoelako Auzitegi Gorenaren 1997ko abenduaren 11ko Delgamuukw erabaki historikoa, zeinek ematen dion aitortza Wet´Suwet´Eneko etorkizko buruen autoritateari. Are gehiago, haien lurretan gelditzeko eskubide osoa ematen die autoktonoei, argi utziz haien baimenik gabe ezin daitezkeela lur horiek hartu. Bertako Molly Wickham autoktonoak gasbidea baino zabalago kokatzen du afera: “Erronka zabalagoa da, autoktonoon eskubideez eta legezko jabegoaz ari gara, baita gure nazioaren burujabetzaz ere. Ondarean oinarritzen den sistema bat daukagu, inoiz ez dena ezabatua izan”. Bai, kapitalismoak kolonialismoarekin errimatzen duela azaleratzen du Coastal GasLink Pipeline Ltd gasbideak. 2015ean aurkeztu zuten “benetako berradiskidetze” batera heltzeko plan nazionala Trudeauak, txosten ofizialetan “dekolonialismoa” ere ai-



TRENBIDEAK BLOKEATURIK
 HAIEN LURRETATIK PASAKO DEN
 COASTAL GASLINK EGITASMOA EZ
 DUTE ONARTZEN WET´SUWET´EN
 LEHEN NAZIOKO ETORKIZKO
 BURUEK. PROIEKTUA AITZINA
 DOALA, EKONOMIA BLOKEATZEKO
 HAUTUA HARTU DUTE.

patzen duela. Baina halakorik ez dute sendi autoktonoek eta gaur egun gertatzen ari dena kolonialismoari lotzen dabilta. “Autoktonoek ez dute gehiago sinesten berradiskidetzean. Ez da ezer egin horren alde. Azkenean, harreman publiko eta komunikazio operazio bat da” Picarden ustez.

Buruen batzarren baimena erreserbetako egoera sozio-ekologiko-ekonomiko kaskarrari lotzen diote anitzek. Besteak beste, Vancouver EcoSocialist Group taldeko Will Offleyk: “Hainbat gertakari erakusten digute bat baino gehiagok etsi-etsian behar izan dutela akordioa izenpetu, bizi duten pobreziazatik eta gobernuek ur edangarria hornitzeko daukaten uzkurkeriazatik”. Pobrezia mailaren azpian bizi da Kanadako autoktono erreserben %80a; Lehen Nazioen %65ak ez du ur edangarririk, produktu minbizi sortzailez

kutsatua dutelako; etxebizitzak egoera “okaztagarrian” dituztela salatu berri du NBEk; Kanadako Lehen Nazioko kideen suizidio tasa autoktono ez direnena baino hiru aldiz handiagoa da, eta abar luze bat. Hori horrela, enpresa multimilionarioek proposatu diru zamak pisua du balantzan.

OKUPAZIOA 2010AZ GEROZTIK

2010ean abiatu zuten erresistentzia, kanpaldi baten bidez, obren hastapena blokeatzeko asmoz. Tentsio pean, baina urtez urte iraun duena. Giroa gogortu zen urtarilaren 7an Auzitegi Gorenak okupazioa desegiteko manua emanik. Hamalau pertsona atxilotu eta horrek eragin zuen hortik gutxira trenbide blokeoa ekarriko zuen mugimenduaren gogortzea. “Nahi bezainbat bortizkeria erabiltzeko” baimena emana die GRC Kanadako poliziaren buruak poliziei.

The Guardian komunikabideak iazko abenduaren 20an plazaratu informazio horrek bazterrak inarrosi zituen. Azken egun hauetako negoziaketa saiakerek huts eginik, “postura aldaketa” jakinarazi du Trudeauuk: barrikadak deseginen ditu.

“Ez da bakarrik botere kontu bat eta *indioen* afera bat. Fossil energia, edateko on den ura, lurraldearen babesa... hori guztia dugu gatazka horren gibelean, eta guztiok gara hunkiak, autoktono izan ala ez”. Hori dio Edith Belangerek “Coastal gasLink: sustrai sakonak daukan gatazka” (*Coastal GasLink: Un conflit aux racines bien profondes*) artikuluan. Klima aldaketa garai honetan, egitasmo ekstraktibista suntsitzaileen kontrako mezua zabaltzen dabilta Kanadako Lehen Nazioak. Azkenean, autoktono ez direnek ere dute haien lekua trenbideetako barrikadetan. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

Txuri Olo

INTERNAZIONALISTA, ANTROPOLOGOA ETA BIZIKI BAIKORRA



HARREMAN KOLONIZATZAILEAK DITUGU GURERA DATOZEN ETORKINEKIN



Kolonizazioa ez da amaitu. Lehen urrutiko lurretan egiten genuen, baina gaur egun etxean ere kolonizatzaile mentalitatearekin jarraitzen dugu. Txuri Oloki ongi daki hori eta ederki azaltzen du. Zehatz, labur eta zuzen, irakasle onak bezala. Emakume jantzia, xaloa eta indartsua da elkartasun ekimen askotan antolaketa lanetan ikusten duguna.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Betidanik izan zara horren pertsona aktiboa?

Baietz uste dut. 20 urtera arte Goldaratzan bizi nintzen baserriko lanak egiten. Ni ahizpa gazteena nintzen eta gurasoek nahi zuten ni han gelditzea, baina ikasi nahi nuela tematu nintzen eta amore eman zutenean Iruñera etorri nintzen. Beti izan naiz lanean eta ikasten.

Iruñera etorri eta hiru urtera hasi nintzen irakasle Paz de Ziganda ikas-tolan. Orduan behar handia zegoen eta irakasle titulu gabeak ere sartzzen ziren klaseak ematera. Garai hartan antolatut zituzten ikastaro batzuk irakasle lanean aritzen ginenentzat, Euskal Herri mai-

lan eta toki guztietatik joan ginen. Oso magisteritza polita izan zen.

Lehenengo garai haiek oso desberdinak ziren?

Bai. Gurasoekin oso harreman polita zegoen, ikasle pila geletan, oso giro alai eta gainera gazteak ginenez, indar eta ilusio izugarriak genituen. Orain aldatu da giroa, baita gurasoen aldetik ere. Jarrera hotzagoa dute, oro har. Exijentzia maila handituz joan da eta emaitzak lehenesten dira. Lehen sorkuntza gehiago sustatzen zen. Orain sormenerako uneak badira ere, tarte batzuk baino ez dira. Beste alor guztietan bezala, ekoizpena eta produktibitatea jartzen dira gainetik.

Aldaketa sakona egin beharko da hezkuntza sisteman?

Zalantzarik gabe. NUPen klaseak ematen hasi nintzenean, argi ikusi nuen eskolan haurrei erakusten dieguna gero bueltan etortzen zaigula unibertsitate garaian. Gazteen kritikarako gaitasuna eta sormena bultzatu nahi ditugu, baina berehala ikusten da haurtzaroan nola koadratu ditugun.

Orokorrean nahiko baikorra naiz baina beldurra ematen dit abiadura honek. Norbaitek esan zuen bezala "etorkizuna, jada, izan zen". Norantz joango garen eta klima aldaketan, esate baterako, lortuko ote dugun garaiz atzera egitea kezka-garria iruditzen zait.



Txuri Ollo Gorriti

GOLDARAZ, 1955



Irakaslea, Antropologian doktorea eta Geografia eta Historia lizentziaduna da. Paz de Ziganda ikastolana 40 urte eman ditu. 2009. urtean irakasle elkartu gisa jardun du NUPeko Gizarte Laneko Sailean. Nikaraguan sei urte aritu zen irakasle iraultzaren garaian. Ekuadorren ere bizi izan da herri indigenekin lanean. Nafarroan diren etorkin nikaraguarren egoera, emakumeena bereziki, aztertu zuen bere doktorego tesian.

Lera Mugarik Gabeko Antropologoak, Arakadia eta Hazi Aroa antropologia taldeetako kide da eta Internazionalistak Auzolanean elkartearen partaidea, besteak beste.

Pozik dio duela hiru urte aurre-jubilatu zenetik denbora gehiago duela elkartasun eta internazionalismo lanetan aritzeko.

Internazionalismora nola iritsi zinen?

Oso gazte nintzela hasi nintzen. Hasi-ran Eliza progresistarekin lotuta zeuden taldeen bidez eta, ondoren, sortu ziren beste mugimendu laiko batzuekin. Borroka sandinistarekin bat egiten zuten ekimenetan edo Komite Internazionalistak taldean sartu nintzen buru belarri. Ingelesa ikasi ez dudanez, beti izan dut Latinoamerikara jotzeko joera.

Nikaraguara joan zinen iraultza sandinistaren garaian. Nolako esperientzia izan zen?

85ean hara joan eta zuzenean Hezkuntza Ministeriora jo nuen, han irakasle lanak egiteko, garai hartan ez zegoelako gaur egun dauden Gobernuaren Kanpoko Erakundeak edo halakorik. Eta horretan ibili nintzen sei urtez. Gerra garaia ziren eta gerra zegoen tokian geunden. Horregatik batzuetan armak hartu behar izan nituen gaueko zaintza lanetan, kontrak eskolara sar ez zitezela. Nik ez nuen sekulan hartu eskopeta bat ezta 'tirapitxon'-ean ere, eta antimilitarista naiz baina han bai, gerra lekua zen eta geureburua defendatu behar genuen. Ez nion inori tirorik bota, baina armak hartu bai. Gero beste herri handiago batera joan nintzen eta landa eremuko eskola txiki zenbaiten koordinazio lana egin nuen.

Zer ikasi zenuen Nikaraguan?

Gauza asko. Mundua ulertzeko eta kolonialismoa zer den ikasteko nire eskola nagusia izan da. Han ikusi nuen nola iritsi diren gaztelania eta kristautasuna txoko guztietaraino. Nola apaizen eta misiolarien jarrerak ere kolonizazioaren parte diren eta baita kolonialismoak nola jarraitzen duen gaur egun ere. Handik itzulitakoan, 92an, beste gauza garrantzitsu bat ikasi nuen: ni han oso ongi hartua izan nintzen toki guztietan eta hemen, aldiz, orduan iristen hasiak ziren etorkinak oso modu desberdinean hartzen genituela ikusi nuen. Gaur egun kolonizazioak jarraitzen du gurera datozen etorkinekin. Harreman kolonizatzaileak ditugu pertsona hauekin. Oso gogorra egin zitzaidan eta horregatik sartu nintzen immigranteen elkarteetan lan egitera.

Doktorego tesia Nafarroan dauden nikaraguarren migrazio esperientziari buruz egin zenuen.

Zer ondorio atera zenituen?

Etorkinekiko dugun botere harreman hori ulertu nahi nuen. Ni nenbilen talde internazionalistetan ikusten nuen, adibidez, nola halako elkarguneetan ere botere harremanak bazeuden. Nahi genuen beste herrialdeetako internazionalistekin lan egin, baina haiekin kontatu gabe eta guk kontrola eramanez.

Beste ondorio bat ere atera nuen: migrazioak ez du balio ez jatorrizko herrialdean ez helmugakoan klase, etnia eta genero arteko desberdintasunak ezabatzeke. Etorkinak, nikaraguarren kasuan emakumeak gehienbat, etxeko lanak egitera etortzen dira. Lehenengo hiru urteak modu ilegalean pasa behar dituzte inolako eskubiderik gabe, etxean ezkatatuta eta isilik. Botere mekanismoek hiru urte horietan pertsona hauek menderatu egiten dituzte eta epe hori pasata ere antzera jarraitzen dute gure gizarte honek ez dielako bestelako irtenbiderik ematen. Haien ikasketak homologatzeko aukerarik ez dute izaten, adibidez.

Hemengo jendartea ez da batere aldatzen. Gizon eta emakumeen artean banatu beharko ziren etxeko lanak, baina emakume horiei pasatzen zaizkie eta horrela hemengo klase soziala eta patriarkatua ez dira batere mugitzen. Gizonek etxeko eta zaintza lanetatik eskapatzen segitzen dute, kanpoko beste emakume horiei ardura pasatuz. Eta etorkinen jatorrizko jendartean ere ez da aldaketarik ematen. Hurbilenekeoi bidalitako diruarekin etxe bat erosi, seme alaben ikasketak ordaindu edo hona ekartzen dituzte, baina sisteman ez da ezer aldatzen. Hemendik bidalitako sosarekin, nolabait, herrialdea mantentzen da, baina pertsona indartsuenez hustu egiten da aldi berean eta, modu honetara, kolonizazioa betikotu egiten da.

Kultur aniztasuna eta kulturartekotasuna ez dela gauza bera diozu. Zein da aldeak?

Kultur aniztasuna kultura ezberdinak toki berean bizitzea da eta hori edonon eta edozein garaitan dugu. Kulturartekotasuna, berriz, elkarrekin harremanak izatea da, baina berdintasunez. Ez kultura hegemoniko bat, eta besteak gutxietsiak.

Europako jendea beste toki batzuetara emigrante gisa joan denean, kolonizatutako lekuetara joan da eta koloni-



zazio horren parte izan da nola edo hala. Han ahaldundu egin da eta ongi hartua izan da, baina hemen ez da gauza bera gertatzen ari. Ikustea besterik ez dago nola dauden Europan etorkinen bigarren edo hirugarren belaunaldiak.

Zein harremana dute etorkinek hemengo jendearekin eta hango senide eta lagunekin?

Hemengo jendartearekin ez dira gehiegi nahasten eta hangoarekin segitzen dute estuki lotuta. Lehengo garaietan hori ez zen gertatzen komunikazio eskasa zegoelako. Egungo teknologia berriei esker etorkinak, emakumeak bereziki, gehiago bizi dira han hemen baino, haurrak ekarri bitartean, bederen. Egunero telefonoz eta whatsapp-ekin eta hemendik kontrolatzen dituzte.

Hango egoera politikoaz ere oso informatuta egoten dira.

Eta gurean integratzeko gogoia dute?

Guk ekonomikoki baztertu ditugu. Lanpostu zehatz batzuk ematen zaizkie eta beste arlo batzuetan aritzeko ez dituzte guk dauzkagun aukera berdinak. Beraz, zer interesa izan behar dute?

Lana ardatza da sozializatze-ko. Ematen digu gure nortasunaren parte handi bat eta haien gustuko lana ez badute, ez badira prestigiodun sentitzen, jarraituko dute burua han izaten eta ez hemen.

Klase sozialen diskurtsoa gaur egun baztertu egin da. Gu erdiko klasea gara eta badago beste klase hori gu baino beherago dagoena, baina ez dugu eztabaidatzeko eta sakontzeko gogorik edo beharrik ikusten.

“
**Emakume
immigranteei pasatzen
zaizkie etxeko lanak eta
horrela, hemengo klase
soziala eta patriarkatua
ez dira batere
mugitzen”**

Zein izan daiteke modua kanpotik etorritako jendea euskararen mundura erakartzeko?

Haien bizimoduak ez du errazten euskararenganako hurbilketa hori. Afektibitatearen aldetik gu hurbiltzen bagara haiengana, haiek hurbilduko dira baina horretarako harreman bat behar da lehendabizi. Kasu bakan batzuk badira, baina harreman hori dutelako; berdintasun harremana dutelako hemengo pertsona batzuekin. Harreman horiek lantzea gure esku ere badago, ez da soilik haien eginbeharra.

Palestinarekiko interesa nola piztu zitzaituzun?

Internazionalista izanda, beti izan dut interesa. Bikote magrebtar bat izan nuen eta horrela hasi nintzen arabiera ikasten. Hizkuntza eta kultur hurbiltasunagatik beti joera gehiago izan dut Latinoamerika aldera, baina Nikaragutatik itzuli eta hizkuntza eskolan sartu nintzen arabiera ikasteko. Gero uda partean arabiar herrialdeetara joaten

nintzen barnetegi modura. Horietako batean Palestinara joan nintzen. Jerusalem geundela berehala jabetu ginen han duten egoeraz eta kolonialismoaz. Itzulitakoan brigada bat antolatu genuen Palestinara joateko eta bestelako ekintzak antolatzeke.

Nikaragua, Palestina, Sahara... zergatik dugu euskaldunok harreman berezia herri hauekin?

Nikaragua enblematikoa izan zen 80ko hamarkadan Euskal Herriko jende askorentzat, hemen ere sentitzen genuelako kolonizazio prozesua egon zela eta indarrez inposatu zigutela gauza asko. Euskaldun ugari joan ginen hara iraultza bizitzeko eta ikasteko, nolabait. ETAko kide batzuk ere iristen ziren errefuxiatu. Guk ez genuen haiekin harremanik, baina bai iraultzarekin. Eta gaur egun, sentiberatasun hori bera dugu Palestina edo Sahara bezalako beste herri kolonizatuekin ere.

Ekuatorreko indigenak ere ezagutzeko aukera izan duzu. Nolako esperientzia izan zen?

Unibertsitatean lanean hasterakoan, Sucumbíos eskualdeko indigenekin lan egiteko proiektu batean sartu nintzen. Antropologia teknikak erakutsi nahi genizkien, haiek ikerketak eta ekimenak egin zituzten beren komunitateetan. Oso erraza egin zitzaidan Amazoniako indigenekin harremanean sartzea, nire baserriar nortasuna, nire naturarekiko harremana oso bat zetozelako haienarekin. Han urtebetez izan ginen eta ondoren liburu potolo bat plazaratu genuen. Geroztik saiatzen naiz urtero joaten proiektuen jarraipena egiteko.

Nortasunaren prestigioa indartzea zen helburua?

Bai, hemen euskararekin egin dugun

prozesu antzekoa bultzatzea zen ideia. Oinarria eman nahi genien, gero haiek haien jakintzak bil zituzten. Ni beti baikorra izan arren, afera honetan arazo asko daudela ikusten dut. Izan ere, ikerketa horretan atera zen informazioa orain turismoa erakartzeko erabiltzen ari dira. Turistifikazioa eta folklorizazioa oso indartsuak dira. Triste da, baina gaur egungo errealitatea halakoa da.

Orain polizia indarkeriaren biktimen inguruko lanak dituzu aztergai, ezta?

Bai, hala da. Lera Mugarik Gabeko Antropologoak Taldea eta Nafarroako Gobernuaren elkarlanean ari gara Nafarroako gertuko historian gertatu diren motibazio politikoko biolentzia kasuak aztertzen. José Luis Canoren, Germán Rodríguezen, Gladys del Estalen eta Mikel Zabalzaren familia, gizarte eta erakunde memoriari buruzko azterlanak egin genituen eta orain beste hirurekin ari gara: Mikel Arregi lakuntzako, Angel Berroeta, eta José Miguel Etxeberria Naparra.

Nahiko kasu desberdinak dira baina amankomunean dituzten gauzen artean bada bat oso garrantzitsua: familiek isildu egin zutela zeukaten mina. Alde horretatik antropologiak aukera ematen dizu modu afektiboan hurbiltzeko. Senitartekoak irekitzen dira eta eskertzen dute gure lana.

Posiblea da bertasio ofiziala neutralizatzea?

Bertasio ofizialak izugarriko indarra du eta beti da azkenean gelditzen dena. Ikustea besterik ez dago nola hitz egiten den oraindik gerra zibilaz eta ez estatu kolpeaz. Gladys del Estalen kasuan ere oso nabarmena da bertasio ofizialaren indarra: nahiz eta bere unean neska hil

zuen guardia zibila epaitua eta kondemnatua izan, ez zen kartzelan sartu eta kondekorazio bat eman zioten. Hori da geratu den bertasioa eta, gaur egun, Tuterako jende askok ez daki ezta Gladys nor zen ere.

Informazioa zabaltzea oso garrantzitsua da eta era berean memoria lekuak izatea ere bai. Hori Naparra-ren kasuan ikusten da argi. Berak ez dauka memoria toki bat. Gorpua non dagoen ez dakigu eta omenaldi bat egiteko ez dakigu nora joan. Honek guztiak bere memoria indargabetzen du.

Eta beste antropologia taldeetan zertan ari zarete lanean?

Arakadia UNEDen inguruan bildutako antropologo talde berria da. Elkartegune profesional bat antolatu nahi dugu beste lanbide batzuen kolegioen modura. Hazi Aroa lau pertsonako taldetxoak gara eta duela bost urte hasi ginen hainbat proiektu egiten. Horietako batean elikadura pobrezia aztertu genuen Iruñerrian. Kalean dauden eskaleekin elkarrizketak egin genituen eta hiri baratzten filosofia aztertu genuen, besteak beste.

Hemen pertsona askok gosea pasatzen du. Etxebizitza ordaintzeko eta elikadura arazoak dituzten pertsonen laguntza humanitarioa emateko hainbat erakunde sortu ditugu, Paris 365 edo Elikagaien bankua, esate baterako. Bankutik 30.000 pertsonak hartzen dute janaria hilerio Nafarroan. Pertsona guztiarentzat soldata duina ziurtatu beharrean, halako egiturak mantentzen dira, batzuei mesede eginez, bidenabar. Supermerkatuentzat, adibidez, soberakinei bide emateko aukera bat da, abantaila fiskalak lortuz, gainera. Gure jendartean gose pixka bat toleratzen da, baina ez gehiegi. ●



Montenegroko agintari autoritario maitagarriak



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Azkeneko asteetan Montenegro mobilizazio erraldoiak izaten ari dira Parlamentuak onartu duen Erljio Askatasunaren Legearen kontra. Alde batetik, legeak hainbat eliza-erlijioari derrigortzen dio 1918an baino lehenago eraikitako tenpluen jabetza frogak aurkeztera eraikinak nazionalizatuak izan ez daitezen, eta bestalde, legeak edozein elizari debekatzen dio atzerriko herrialde baten izena izatea.

Bi neurri horiek Montenegroko Serbiar Eliza Ortodoxoa eraso egitea dute helburu, herrialdeko populazioaren ia %75aren eliza. Lehen pausoa Eliza Ortodoxo Montenegroarra sortu eta honi serbiar elizari kendutako tenpluak erabiltzeko emakida egitea litzateke; bigarrena egun herrialdean nagusi den eliza legez kanpo uztea eliz-migrazioa bultzatzeko.

Historikoki montenegroarrek serbiarretan serbiarrena bezala kontsideratu dute beraien nortasuna, izan ere, hizkuntza eta erlijio berbera izateaz gain, Zetako printzerria, geroago Montenegroko Printzerria izango zena, Serbiako Erresumak sortu zuen.

XVI. mendean Otomandar Inperioak serbiar lurralde gehienak okupatu zituen, Montenegroko Printzerria izan ezik, hortik dator *superserbiar* sentimendua: inoiz ez okupatuak. 1918an Serbiak eta Montenegrok I. Jugoslavian batasuna lortu zuten. Ondoren, Jugoslavia sozialistak biak banatu zituen serbiarren boterea ahultzeko. Halere, bi errepublikek ban-

Teoria instituzionalistek diote herrialde bat independente bilakatzen den unetik estatuaren nortasun nazionala indartu egiten dela. Montenegro salbuespena da

dera berbera konpartitzen jarraitu zuten Montenegroko Printzerriak/Erresumak eta Serbiako Erresumak konpartitu zuten bezala XIX. mende amaieratik.

1992ko Montenegroko independentziari buruzko erreferendumean ia %97k Jugoslavian jarraitzearen alde egin zuen eta soilik %3k independentzia babestu. Baina, Montenegro turismoaz bizi da nagusiki eta 1990eko hamarkada amaierarako Jugoslavia herrialde paria bilakatu zen gerregatik eta zigor ekonomikoengatik.

1999an NATOk Serbia eta Montenegro bonbardatu zituen eta orduan, Montenegro agintean zegoen elite politikoak boterea mantentzeko marko alemana moneta bezala hartu eta Mendebaldearen esanetara jarri zen. 2006an %55,5ak independentzia babestu zuen, boto albaniarra eta musulmana klabeak izan ziren garaipenerako.

Teoria instituzionalistek diote herrialde bat independente bilakatzen den unetik estatuaren nortasun nazionala indartu egiten dela. Montenegro salbuespena da. 1948an bere herritarren %90,7 montenegroar nazionalitatearekin identifikatzen zen, gehiago oso zabal batentzat serbiar izateko modu bat zelako; 2011n, aldiz, %45 baino ez zen identifikatzen montenegroar nazionalitatearekin. Horregatik, gobernua montenegroar hizkuntza sortzen saiatu zen, nahiz eta azkenean bataila hau galdu egin duen. Orain ideia berria da eliza bat sortzea, baina erabakiak montenegroar nazionalista askoren artean hautsak harrotu ditu eta kalera atera dira protesta-terza serbiar nazionalistekin batera.

Bost urte dira Montenegro mobilizazio masiboak daudela hainbat motiborengatik, baina ez da kasualitatea horiek guztiak Mendebaldeko hedabideetan oihartzun txikia izatea, izan ere, EBk eta NATOk babesten duten gobernua- ren kontrakoak dira. Azken horiek garbi dute Milo Đukanović boterean egon ezean Montenegro ez luketela hain erraz kontrolatuko. Horregatik Mendebalderi ez zaio gehiegi inporta Đukanovićek 32 urte betetzea boterean, neurri autoritarioak hartzea, oposizioari jazarpen judiziala egitea eta ustelkeria itsaso batean igeri egitea. Horiek guztiak barkatzeko modukoak dira baldin eta horrek segurtatzen badu Montenegro Mendebaldearen esanetara dagoela. ●

Ekintzailea



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Ekintzailea naiz. Ekiten duenaren zentzuan, hau da aktibista, zerbait abiatzeko metxa jartzen duen pertsona, bideari, lagunari, zerbaiti heltzen zaiona, aldaketa nahiak ernegaturik. Bat baino gehiago harrituko da? Barnealdeko euskal familia plantakoetakoak nahiko kontserbatzaileak izan ohi garelako eta ekintzaile izateak zerbait kanbiatu, agian irauli ere, nahi izatea baitakar eta ez bor txaz beti onerako? Bai, oldar subertsiboak janak ukan ditzake barnak edozeinek, hipokreatiboek barne. Bada, halaxe naiz, noizbehinka behintzat, eta ordua da eginaren aldarrikatzeko.

Ekintzaile bihurtzea, progresiboki gertatu zen, adibidez pseudo-demokrazia jarri bati buru egiteko bide legal gutxi dela ohartzean, edo sortzetik gutxi garenei behin eta berriz eta beti eskubideak kentzen dizkigutela pairatzean, guk gehiago ukateak beste nehoi deus kenduko ez liokeen lekuan. Zabortege gainean bizi gara, autobideak eraikitzen ditugu gainetik, edo zentro komertzialak, guzti hori poliki apainduz eta izaki oro masakratuz, sekulan erantzukizunik asumitu gabe. Erretxintzekoa da etengabe bizitzea ukazio eta ezbaiz artean, sekulan gurea izanen ez den diruaren alienaturik, ongi izate

itxurak eginez. Hots, bake garaiak dira eta aldi berean hain bortitzak, hain intoleranteak, hain suntsitzaileak.

Beraz, batzuetan, iratzartzen naiz eta gogoan ditut bestea, biharra, nire burua ez sobera entzutea eta gogoak pizten zaizkit berantean heltzeko lanera edota eguzkitan egoteko betaurreko beltzik gabe, tontoei irri egiten diet aurpegira eta herriko etxeko hautagaiei boz bakarra ere ez dutela merezi ozenki erraten: elektro libre hutsa, bala galdua.

Zerbaitetan bereizteko hautua egin dut halere. Dena hasi zen, iragaten nintzenezan baratze publikoetako liburu-truke ontzien ondotik, nahiz elkartetxeetako apal hornituen aitzinetik. Liburu truke ontzien asmoa ona zen, intentzioa bazen: liburuak trukatzeko armairutxoak leku publikoetan, jendeak hustu eta hornituak, trukada-toki autogestionatuak. Baina horra: hezetasanak bezainbat errautsak jaten zituen liburuak ikusten nituen hortxe.

Ororen buru, etxean poxeluan ziren liburuak, apalategietan kabitzen ez zirenak despeditzeko tokiak izaten dira. Elkarren ondoan ager daitezke harri-garriki Monsieur Tristesse, Marc Levy, Amélie Nothomb eta Sorj Chalandon,

edo Grabinoulor Germinalen aldean: mazedonia eszentrikoa. Hilabeteak iragan ditzakete bertan. Eta, sinets ezazue, euskarazko publikazioak kausi daitezke, izen handiak barne.

Maiz, tirria indartsuak, kasik salbaiak ene izate osoa bahitzen du apalategiaren aitzinean. Eta bat edo beste askatzen dut. Ez dut edozein hartzen: ekintza go-goetatuak dira nireak: betiere ikasgai bat lukeela iruditzen zaidana eramaten dut. Gero, urrunago uzten dut, ahalik eta leku gertagaitzenez, ostatu baten zolan, lantokiko komunetan, ile apaindegietako aldizkari mahaiak ere leku aproposak dira. Denak betiere diskretuak. Ondotik, ahal bezain fite, barreiatzen ditut, handik bidea egin dezaten, solte, destinoari emanak, behar duten eskuarteraino. Berritasunez gosetuak diren espirituek arnastuko dituzte ondotik, agian, ez badute zakarrontzian amaitzen.

Bai, ekintzak burutzen ditut nonahi, gutxien espero den momentuan, liburuak libratuz, salbatuz ahanzturatik eta beste norabait helaraziz. Liburuak hedatzen dituzten akzioak burutzen ditut, isilka. Pentsatuz, behar bada, hortik has ten dela. ●

Gaixoak, gu



KOLDO ALDALUR
KAZETARIA

Eguna zabaldu baino lehen utzi dut oheko epela, eta etxetik bertan dagoen bidegorrira abiatu naiz argia noiz eta nondik azalduko ote den neure buruari galdezka.

Urrutira itzal bat korrika txikian dato-rrera iruditu zait. Gerturatzean, motots dantzaria salatari, konturatu naiz neska bat dela. Ikusi nauenean pausoa mantso- tu du, mobila patrikatik atera, eta norbai- tekin berriketan ari den plantak egin ditu. Ia nire parera iritsi denean “bidegorrian nabil, Okerkua baserriaren parean”, bota du ozen, eta segidan, pausoa nabarmen bizkortu. Atzera utzi nauenean lasaitu ederra hartu duela uste dut.

“Gizarte hau gaixorik dago kirolak ere lasai egin ezin badute”, pentsatu dut.

Agian, pentsatzen ariko zarete emakumeentzat hain ohikoak diren egoerak oraindik norbait harritzea oso seinale txarra dela. Agian, bai.

“Gizarte hau gaixorik dago”. Gu geu ez bagina bezala gizarte harremanak sor- tzen eta mantentzen ditugunok; inposat- urik eman zaigun zerbaite balitz bezala, gutaz haragokoa; gizarte gaixorik ego- teko guk ezer egin ez dugulakoan.

Hogeita bost urte luze egin ditut, ofi- zioa eta afizioa uztartuz, kirol kontue- tan murgilduta. Zenbat aldiz entzun dut –bake santuak gehiago balio duelakoan,

nire partetik erantzunik izan gabe– emakumeen aurkako komentario iraingarri- rik? Zenbat aldiz aritu naiz tenore ede- rrean emakumeen kirol maila gutxietsi duten antolatzaileekin solasaldian? Aipa- tu al diet inoiz nire desadostasuna emakumeak baztertzan dituztelako tradizio eta ohitura aldeezinen babesean? Sarri isiltasuna konplizeagoa da hitz gogorre- na baino gizarte gaixoak osatzean.

Noiz aipatu ote dut jende aurrean bi generoz hitz egitea errealitatearen parte handi bat baztertzea dela? “Generoa” kontzeptuak multzokatu egiten gaituela, lotu eta mugatu, eta, agian, norbaitek ez duela gizarteak ezarritako puzzlearen pieza soila izan nahi.

Gizonezkoen kirolak ikusi ditut, gizo- nezkoenak soilik, hiztegi eta arau mas- kulinoak dituztenak; ez kirol lagun, ez aurkari, emakumeak ondoan nahi ez dituzten usteko kirolari eta jarraitzaileak. Eta ondoan nahi ez dituenak, sarri, aurrean izaten ditu baztertu nahi izan dituen haiek.

Bidegorrian, telefonoz hitz egiteko itxura egin zuen korrikalariak hau iraku- rri badu, seguruenik pentsatuko du: emakumeok kirolean ere ditugun beldurrez aritu behar, eta protagonista, orain ere, bere burua jarri du. Gizonezkoek erremediorik ez dute! ●

G-maila



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Maiz aski aditu izan dugu irudi batek mila hitzek baino gehi- go balio duela. Esapide horren atzean, ebidentzian oinarritutako pen- tsaera bat bide zegoen: milaka esanen –kalaken– aurrean, bizitzan norberen begiekin ikusitakoak egiatan balio zuen. XXI. mendean, geure begiekin ikusten ditugun irudiak ez dira, nonbait ere, iragan batekoak bezain fidagarriak: komunikazio digitalak gauza askoren egiazkotasuna kolokan jarri du, bai eta pantailetan ikusten ditugun irudien ebidentzia balioa ere. Hitzak manipu- latzeko artea zaharragoa izanagatik ere –hori ukatzerik ez dago–, irudiak “tra-

tatzeko” praktika ausarki hedatua da egun.

Hain zuzen ere, irudiekin lan egiten duen lankide batek solas egin berri dizu hitz batez: *g-maila*. Izan ere, azken urteotan, erabilera aldaketa nabarmena ikusi du –Hegoaldeko lau probintzie- tatik etortzen diren– ikasle ugariaren ahotan. Hala, duela gutxi arteko EHUko *e-maila* EHUko *g-maila* bihurtu da, edo- ta e-mail bat bidaltzen zen lekuan orain *g-mailak* bidaltzen dira. Kultura berri bat abian da, *Google*-k doan babestua.

Nekez irudika liteke hobeki zenbait arlotan bizitzen ari garen uniformeta- suna. Hitz batez. ●

Maskarada



AMANCAY GAZTAÑAGA
AKTOREA ETA ZUZENDARIA

MASKARADA: GIZARTEAREN SATIRA OROKORRA EGITEN DEN IKUSKIZUNA

Gaur beste e-mail bat iritsi zaigu. Azken bi asteetan, bost. Premiazkoa dute martxo-ko ekimenetarako, emakumeek sorturiko emanaldi bat topatzea. Gu kontratu nahi gaituzte. Agenda hartu dut, martxoa entzuten dudana bakoitzean hotzikarak sartzen zaizkit. Ireki dut. Ez da ezer gehiago kabitzen, topera nago martxoan. Nire lan-kideari komentatu diot, agian saia gaitezke eskaera horri tokitxo bat egiten, gure profesio honetan ez da ezetz esatea komeni. Berriz ere agenda atera eta... Ezinezkoa, ez dugu tokirik martxoan. Martxoa: *petatuta, full*.

E-maila erantzun dut, agudo: martxoa topera dugu, baina ez genuke emanaldi hau egiteko aukera galdu nahi. Mesedez beste hilabete batera pasatzerik bai?

Erantzuna: lastima, martxorako behar du. Ez dago beste aukerarik.

MASKARADA: MASKARATUTA DOAZEN PERTSONEN KONPARTSA

Ezkorra ote naiz? Urteko hilabete ho-

Ez gaitezen konformatu.
Irla morearen isla hain da tentagarria. Sistemak maskarada du maite, engainua. Trebezia handiz daki bere kontra doan guztia azkar estaltzen

netan, inoiz baino gehiago egingo dut lan... eta lana ez den guztia; ikastaroak, hitzaldiak, ekintzak... Martxoa topera dugu, neskak! Poztu gaitezen! Mila esker udaletxe, banatzaile, teknikari, sortzaile maskulino, martxoa guri uzteagatik. Esker mila toki pixka bat egiteagatik. Ez naiz diplomazia zale, ezagutzen nauzue-nak badakizue, ezta ogi-apurrekin asetzen den horietakoa ere. Bada denbora, mugimendu feministara gerturatzen ari den jende askorengan, sistemaren kira-tsa usaintzen dudana. Kontziente naiz,

azken aste hauetan iritsi diren e-mail horietako askoren jabeek ez dakitela zer den gure ikuskizunean kontatzen dena. Bi emakume dira, emakumeen gauzez hitz egiten, programatu ditzagun, baina martxoan ez bada, ez.

MASKARATU: ESTALI, EZKUTATU, GORDE

Emakumeen gauzak...

Bigarren e-mail horretan jarraitzen dugu, apurrekin asetzen... Eta ni gose naiz... Eta ez, ez naiz konformatzen. Ez gaitezen konformatu. Irla morearen isla hain da tentagarria. Sistemak maskarada du maite, engainua. Trebezia handiz daki bere kontra doan guztia azkar estaltzen. Baina gu transatlantiko bat gara neskak, itsaso bortitz hau zeharkatzen goaz, martxa geldo ezinean. Ondo gabiltza lanean. Oraingo honetan gu geratzea zaila izango dela pentsatu nahi dut. Adi jarrai dezagun. Ase gaitezen, jan dezagun bap. Ez gaitezen poztu martxoa topera dugulako, izan dezagun urte osoa topera. Utz diezagutela behingoz, dago-kigun tokia. ●

Atsedena formazioa eta zaintza

Esperientzia berri bat Arantzazun, **hik hasiren** eskutik

*Pentsa ezazu egun batzuk har ditzakezula atsedean hartzeko. Eguneroko gainkarga, eskakizunak eta eskolako erritmoa utzi eta gelditu, arnasa sakon hartu eta unean unekoari arreta jartzeko aukera duzula. **Atsedena**.*

*Gainera, erlaxatzeko, kontzentratzeko eta momentuan kokatzeko hainbat teknika eta bitarteko erakusten dizkizula aditu batek, gero horiek zuk zeure bizitzan nahiz gelan ikasleekin erabiltzeko. **Formazioa**.*

*Egun horiek zeure burua zaintzeko egunak izan daitezke, zu zeu hobeto egoteko eta ingurukoekin gusturako aritzeko. **Zaintza**.*

Atsedena, formazioa eta zaintza.
Hirurak Arantzazun,
Hik Hasiren eskutik.



Egunak: apirilaren 4tik 8ra

Irakaslea: Marina Pintos (*Orain eta Izan* diskoen egilea)

Lekua: Asis topagunea, Arantzazu

Egitarauaren barruan: yoga, ibilaldi kontzienteak, erlaxazio eta kontzentrazio teknikak eskolarako, emozioen kudeaketa, meditazioa, kontzertu meditatiboa, etxeko janaria...

Izen-ematea: otsailaren 21etik martxoaren 17ra
(kopuru mugatua)

Informazio gehiago: www.hikhasi.eus

IPAR EUSKAL HERRIA

Herriko Etxeen osaketa erabakiko da martxoaren 15 eta 22an

Sei urtero herriko kontseilua hautatzera deituak dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako bozkatzaileak. Guztira 158 herri dira eta 2014an bezala aurten ere egon behar lirateke sorpresak. Abertzaleen alde izan daitezkeen ezustekoak ere gerta daitezke herri batzuetan, Ziburu zein Donapaleun adibidez. 1.000 biztanlez gorako udalei begira jarri gara, hots, proiektu politiko baten inguruan osaturiko zerrenden arteko lehiari. Hain zuzen, 1.000 biztanlez gutxiagoko herrietan –Ipar Euskal Herriko 117 herrietan– ez da zerrenda osoaren alde bozkatzen baizik eta banan-banan hautagaien alde.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Martxoaren 15ean ukanen dituzte herriko bozkek Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako bozkatzaileek. Lehen bozketa horretan %50 baino gehiago lortuko duen hautagaia izanen da herriko etxearen buru. Hori lortu ezean, bigarren bozketa bat izanen da martxoaren 22an, lehen itzulian %10eko muga gainditu dutenen artean (%5 gainditu duena lotzen ahalko da lehian gelditzen den beste zerrenda bati). Nahiz langa gainditu, bigarrenean ez aurkezteko erabakia hartzen ahalko du zerrenda batek, bien itzulien artean hautagaien arteko tratua eta negoziaketa beroak eraginez.

158 herri daude Ipar Euskal Herrian eta guztiak ezin aipa. Batez ere horietarik anitz direlako 1.000 biztanlez gutxiagokoak, hots, bozka sistema ezberdin batean: zerrenda oso baten alde egin beharrean, kontseilariak banan-banan hautatzen dira (zerrendako hautagai batzuk marratu daitezke eta zerrenda ezberdinetatik hautagaiak hautatuz kontseilua osatu). Alderdiak pisu gutxi izan

ohi dute herri ttipietan eta programak baino gehiago pertsonak du eragiten. Lapurdiko 41 herrietan bakarrik bost baldin badira 1.000 biztanlez petik, egoera arras desberdina da beste bi lurraldeetan: Nafarroa Beherean bost salbu (Donibane Garazi, Aiherra, Bidaxune, Baigorri eta Donapaleu) beste 70ak dira 1.000 herritarrez petik eta Zuberoan berriz, Maulez aparte beste 42ak dira 1.000 herritar baino gutxiagorekin.

Herri ttipi horiek berebiziko garrantzia dute noski, ondoko sei urteetako herriaren biziaz erabakitzeaz gain, beste hainbat gaiei buruz interpelatuak izaten direlako: izan ingurumena, presoen auzia zein euskara, besteak beste. Euskal Hirigune Elkargoan ere dute aulkia eta instituzio horren nondik-norakoan pisa. Hala ere, herri ttipietako ika-mikak eta auzoen arteko tratua alde batera utzirik, zerrendeia begira jarri gara.

HIRIBURUAK: ESKUINA ETA ESKUIN-ZENTROA NAHIKO LASAI

Baiona, hasteko. Ikustekoa da auzapezaren aulkia atxikitzen lortuko duen

Jean-Rene Etxegaraik. Zentro-eskuindar gisa etiketatu ohi du jendeak nahiz eta berak horrelakorik ez baitezpada gogoko ukan: “Zentro-eskuinean kokatu ohi nauzue. Hori duzelako gogoko, banaketa sinple eta argia. Baina nik jakin nahi nuke eraman ditudan politika guztien ondortik zer naizen: eskuina ala ezkerria. Eta arras ongi ez banaiz ez bat ez bestean kokatua. Jendeen sailkatzean oinarritzen den mundu horretan, nirekin antza guti duen mundu horretan ongi zait sailkatzin izatea”. Berea sailkatzeko zailtasunak baldin baditu ere, orokorrean zentro zein eskuineko du zerrenda. Badaude tartean hala ere salbuespenak, argiki ezkererantz doazenak, argiena Laurence Hardouin izaki, iraganean EH Bai-ren hautagaia ere izandakoa eta gaur egun etorkinen alde ari dena, abokatu zein militante gisa. Duela sei urtekoari alderatuz, aldi honetan batasun zabalagoa du eskuin aldean: eskuin-muturreko hautagaitzaz aparte, ez du beste areriorik (2014ko lehen itzulian botoen %18,53 lortu zituen eskuineko bigarren zerrenda batek, Etxegaraik %29,98 zituela). Kargualdian era-

mandako politika sozialegia (batez ere, etorkinak laguntzeko ireki Pausa aterpe-lekuarekin) ala abertzaleegia (bake prozesuaren alde daukan engaiamendua, besteak beste) iruditu zaionari Pascal Lesselier hautagaitza geldituko zaio eskuinean. Haatik, eskuinaren muturrean kokatzen da eta ikustekoa da zenbat izanen diren horrekin eroso (azken Europako hauteskundeetan %15 lortu zuen Baionan Marine Le Penen Batasun Nazionala deitu eskuin muturreko alderdiak).

Nahiko lasai egoteko panorama batean egon arren, neke izanen zaio botoen %50 lortzea eta bigarren itzulian erabaki behar lirateke udaletxearen osaketa. Bi itzulien artean eginen diren negoziaketek edota sostenguek zein sostengu-ezek ukanen dute garrantzia handia. Hain zuzen, ezkerri dagokionez, zatiturik aurkezten da. Batetik, duela sei urte soilik 26 bozengatik bigarren gelditu zen Henri Etxetoren *Baiona Hiri Irekia* zerrenda sozialista, desadostasunak desadostasun, aldi honetan nahiko bakarrik dagoena. Bestetik, Jean-Claude Iriart eta Sophie Bussiere buru dituen *Baiona Berde eta Elkarkidea* zerrenda, EH Bai koalizioa abertzaleak, Europe Ecologie Berdeak talde ekologistak eta Frantzia Intsumitua zein Elgarrekin ezkerreko alderdiek sostengaturikoa eta azkenik, *Bihar Baiona* zerrenda, oposizioan egondakoa eta Etxetoren taldetik 2018an ateratako Mathieu Berge eta Sophie Herreda Landa hautetsiak buru. Hiruek lortuko ote dute bigarren itzulira pasatzen? Abertzaleez ere osaturiko zerrendak lortu dezake, ikusiz aurreko hauteskundeetan %10,3 egin zuela eta kanpaina txukuna egiten ari dela. Hiruek ala bik lortuz gero, zer gertatuko da? Guztiak mantenduko dira Etxegarairi udaltxeko bidea oztopatzeke aukera zapuztuz ala adostasun bat lorturik batek utziko dio garaipenera heltzeko xantza besteari? Eztabaida luzeak aurrekusi daitezke eta bi itzulien artean argitu behar lirateke erabakigarria izanen den estrategia. Dena dela, biztanleria berria ere du Baionak eta

2014ko bozketei alderaturik 2.000 bozkatzaile gehiago dira aurten. Horiek nola bozkatuko duten ezin jakin.

Mauleri dagokionez, berriz aurkezten da 2008az geroztik auzapez den Mixel Etxebest. Urte horretan gertatu zen lurrikara, hamarkada luzeetan ezkerrek kudeaturiko hiria zentro-eskuinera pasa zelako, Etxebest izendatuz auzapez. 2014an ere gertatu zen lurrikara ttipia, Beñat Elkegarai abertzalea sartu zelako herriko etxera (botoen %13,2 lorturik 2014ko lehen itzulian). XIX. mendetik goiti, espartinen industriari esker garaturiko hiria da Maule, gaur egun ere oraindik du sektore horrek inportantzia, historikoki langile-riari loturiko ezkerrek eta ezker muturrak indartsu segitzen duelarik. Tamalez, Louis Labadot komunista jakobinoa izaki,

ez ditu partekatzen aldarri abertzale zein euskaltzaleak, are gehiago, kontra ere kokatzen da. Hori horrela, 2008an bezala 2014an ere ez ziren adostu ahal izan zerrenda komunista eta abertzalea eta horrek segurtatu zion bigarren kargualdia zentristari. Aitzineko aldian bezala, ezkerretik bi zerrenda ditu parean Etxebestek: Alderdi Komunistak sostengaturiko Labadotek eramandako zerrenda irekia eta Elkegaraiak gidatu *Aitzina Maule* zerrenda zabala. Maulen ere bigarren bozketa aldian argitu behar lirateke herriko etxearen osaketa. 2014ean Etxebestek botoen %47,32, Labadotek %41,75 eta Elkegaraiak %10,93 bildu zituzten.

Donibane Garaziko Alfontxo Idiart auzapezak ez du berriz errepikatuko hautagaitza. Udaletxea utziko du hemezortzi



ZIBURU BIZI 2020

ZIBURU BIZI 2020 Sylviane Alaux diputatu ohia (mikrofonoa duena) Eneko Aldanari sostengua adierazten.

urtez auzapezaren aulkian egon ondoren. Haren ordezkero, Nafarroa Behereko dinastia gisa ikusia izan daitekeen Intxauspe familiako semea hautatu dute: Laurent Intxauspe. Denborak ez baditu mentalitateak gehiegi aldatu –eta horrela behar luke gertatu– estrategikoki hautu ona egin duela erran daiteke. Parean, duela sei urte bezala, zerrenda bakarra eta berdina ukanen du: Xabi Larre buru, abertzaleez osaturiko zerrenda zabala. 2014an, lehen itzulitik atera zen garaile Idiart, botoen %66,70 eskuraturik (Larrek berria %33,30 zituela). Bi zerrenda izanki eta ez bada abstentzio tasa ikaragarria, lehen itzulian ezagutuko da Donibane Garaziko herriko kontseilu berria.

ALDAKETA HAIZEA SENDI DA GUNEA, ABERTZALEEN ALDE

Aldaketa haizea sendi da herri batzuetan, abertzaleen onerako izan daitekeen haizea gainera. Duela sei urte herriko auzapez aulki batzuk lortu zituzten gisara, aurten ere egon daitezke batzuk ezkerreko abertzaleentzat. Batzuk aipatzeokotan horra hor zerrendatxoak: Donapaleu, Ziburu, Ahetze eta bigarren itzulirako akordioak lortuz gero, beste batzuk egon daitezke behintzat gehiengoan.

Segur dena da Donapaleu aldera begira egon beharko gara martxoaren 15ean. 2014ko estrategia ezberdina harturik, herriko etxera sartzeko aukera dute aldi honetan abertzaleek. Hain zuzen, 2014an bigarren itzulian mantendu zen Stephane Irolaren *Donapaleu Berria* zerrenda abertzalea eta auzapeza kanpo ezarri

nahi zituztenen botoak Irola (%14,18) eta Charles Massondoren (%35,98) artean banatu ziren. Horrek ekarri zuen laugarren aldikoz Jean Jacques Loustaudine eskuindarrak garaipena lortu izana (%49,84). Matematikari izugarria ez da izan behar ondorioztatzeko elkarturik bidea blokeatuko ziotela aspaldian boterean zuten eskuinari. Duela sei urte posible ezin zena oraingoan egingarri agertu da. Hain zuzen, lehen itzulitik elkartu dira abertzaleak eta Massondo, zerrendaren erdia abertzalez osatua izaki. “Aspertua gara *status quo* eta Amikuzeko eskuin kontserbadorearen berunezko geruzaz”. Hori horrela indarrak batu dituzte eskuinari bidea mozteko.

Bere lauorgeri urteekin Loustaudine auzapeza ez bada aurkezten ere, eskuin kontserbadorearen aurpegi amikuztar ezagun bat hautatu du ordezkatzeko: orain arte Lüküzeko auzapez izandako Barthelémy Aguerre. Eskualde zein departamenduko politikan aspalditik dagoena, anti-abertzalea eta anti-euskaltzalea, politikari ezaguna da. Agroindustriaren sektoreko enpresari ezaguna ere da, besteak beste, Lur Berriko presidente orde eta Spangheroko presidente izandakoa. Azken honekin zapartatu zen Europa osoko eskandalua 2013an, idiki bezala saldutakoan zaldi haragia atzeman zutelako. Orain arte botere lekuetara iristea lortu du Aguerrek, baina baliteke aldi honetan gogorrago kausitzea bidea. Parean hautagai bakarria dagoelako bategatik eta bestetik, berez ez delako Donapaleuko eta “kanpotik jinik barne mailako

aferetara sartzeko hori” bat baino gehiagok ez dutelako begi onez hartu.

Abertzaleek garaipena erdiesteko aukerak dituzte Ziburun ere. Sekulan baino hurbilago dauka garaipena Eneko Aldana hautetsi abertzale gazteak. Duela sei urteko lehen itzulian emaitza polita bildurik (%21,09), aldi honetan ere gisa berekoak aurreikusiak direlako, jasotako sostenguak ikusita. Aldi honetan, Alderdi Sozialistak ez du zerrendarik aurkeztuko (2014an botoen %26,70 lortu zuten) eta gainera, Aldanaren *Ziburu Bizi 2020* zerrendaren alde botoa emateko deia luzatu dute sozialistek. Historikoa dela erran daiteke. 1989tik 2001era hiri horretako auzapez izandako Albert Pery sozialistak izenpeturiko gutun bidez jakinarazi zuten abertzalea sostengatzeko erabakia: “Batasunik gabe ezer ez delako posible izango”. Sylviane Alaux diputatu sozialista ohia egon zen otsailaren 15eko Ziburu Bizi 2020 zerrendaren aurkezpenean: “Sozialista naiz, ez abertzalea. Alderdi Sozialista erabat kokatzen da Enekoren programan, beste sozialista ohi batzuk beren aldetik doazenean. Sei urte ikusi ditut oposizioko hautetsi gazte horiek lanean eta eredugarriak izan dira, beti bestearekiko errespetuan”. 1983az geroztik lehen aldia da Alderdi Sozialistak ez duela zerrendarik aurkeztuko eta nola ez, lehen aldia ere horrelako sostengua erakusten dutela abertzaleei. Europe Ecologie Berdeek ere dute Aldanaren alde bozkatzera deitu. Ezkerretik ere doazenen artean bigarren zerrenda bat ukanen dute Ziburun: *Elkarrekin Ziburuentzat* izenekoa, “zentro eskuinean, zentro ezkerrean eta ezker eta ekologian” kokatzen dena. Zabala beraz eta ikustekoa zabaltasun horrek zenbat dituen erakarriko. Dena dela, sozialistek abertzaleei erakutsi sostenguekin bat egiten ez duten sozialista frantsesek hor izanen dute bigarren aukera botoa ematerakoan.

Hemezortzi urtez auzapez izan ondoren, ez da berriz aurkeztuko Guy Poulou eskuindarra. *Aupa Ziburu* zerrenda buru, Isabelle Dubarbier-Gorostidik hartu dio lekukoa, auzapezaren aulkiari begira. Baina Poulouri joan ohi zaizkion botoak bitan banatuko dira, Aupa Ziburu deitu elkartekoek erabakitakoari kasurik ez eginik, beretik segitzeko erabakia hartu duelako Henri Hirigoyenberrik. Hautagaitzaren hautatzeko unean 16k egin zuten Dubardier-Gorostidiren alde, 15k Hirigoyenberriren alde. Errepublikazaleak alderdiak ez du bat ala bestearen alde bozkatzeko deirik luzatu. Eskuine-

ko botoen zatitze horrek Aldanaren alde egin behar luke. Bosgarrena ere dute *Ziburua maite dut* izenekoa, besta komiteko presidente gisa aspaldian ezaguna den Jojo Haranburuk eramana.

Azken bat aipatzekotan, Biriaturuko aipa dezakegu. Zerrenda bakarra izanen da gaur egungo auzapez eskuindarraren parean. Solange Demarcq-Egiguren buru, abertzaleez osaturiko *Biriaturuko geroa* zerrenda ukanen du parean Mixel Hiriartek. Duela sei urte botoen %47,69 lortu zuen abertzaleen zerrendak baina baliteke aurten gehiago lortzea eta gehiengo esku-ratzea. Zergatik? Agian herritasun gose daudelako biriatuarrak. 1989az geroztik du auzapezaren aulkia Hiriartek, nahiz eta bere 73 urteek ez izutu karguan segitzeko, baliteke herritarrek bestela ikustea.

Herri guztiak ezin daitezke aurkeztu, baina argi da bi itzulien arteko negoziaketei esker lortu dezaketela abertzaleek herriko etxe batzuetako gehiengoan sartzea eta nork daki, lehen itzulian ezkerreko lehen indar kokaturik auzapezaren aulkian esertzea ere. Adibidez, aitzineko hauteskundeetan horrela lortu zuten *Hendaia Biltzen* zerrendarekin Hendaia-ko udaletxeko gehiengoan kokatzen.

Duela sei urte ez bezala, bigarren itzulia gerta daiteke aldi honetan Hazparnen. Hala balitz, abertzaleek balukete pisa, edo bigarren itzuliko hautagai gisa (2014an %23,62 lortu zuten) edo gehiengoan egoteko negoziaketetan. Hain zuzen, 2014an lehen itzulitik irabazi zituen hauteskundeak Beñat Intxauspe zentristak. Aurten ordea, hirugarren zerrenda bat bada, bere gisara zentroan kokatzen dena: *Hazparne Bihotzean* zerrendarekin Isabelle Pargade. 2008tik 2014ra Intxausperen gehiengoan kontseilari izandakoa aldi honetan arerioa da. Jada departamenduko bozketak irabazi zituen 2015ean Intxausperen kontra eta aldi ho-



DANI BLANCO

JEAN-RENE ETZEGARAI berriro aurkezten da Baionako auzapeza.

netan ere auzapezari boto parrasta hartuko dizkiola aurreikusitako daiteke.

BAIGORRI ETA UZTARITZERI SO

Baigorri eta Uztaritzeri begira ere egon beharko gara martxoaren 15ean. Hain zuzen, duela sei urte lehen aldikoz bi herri horietako auzapezaren aulkia lortu zuten abertzaleek. Abertzaleez osaturiko *Aitzina Baigorri*-k botoen %53 eginek irabazi zituen lehen itzulitik hauteskundeak, ordura arteko auzapeza izandako Jean-Baptiste Lamberti aulkia hartuz. Aurten aurkezten den zerrenda bakarra izanki ez da sorpresarik gertatuko. Ikustekoa hala ere zenbat boto bilduko dituen eta horren bidez baigorriarrek zer nolako balorapena egiten duten Jean-Mixel Coscarat eta bere kontseiluaren lanaz.

Hauteskundeetako sorpresa handiena eraginez, Uztaritzeko herriko etxera ere sartu ziren abertzaleak, Bruno Carrerek

auzapezaren aulkia hartuz. Bigarren itzulia erabaki zen, lehen itzulian aurkezturiko lau zerrenden arteko lehia errepikatuz. Aurten ere lau zerrenda lehiatuko dira: oposizioko Jean-Claude Saint-Jeanek zuzendutakoa, duela sei urte auzapez kargua galdu zuen Dominique Lesbatsena eta ezkerreko bigarren zerrenda bat, oposizioan egondako Bruno Cendresek eramanez.

Carrerren gehiengoak landutako eta bozkaturiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak izan dezake eragina emaitzetan. Carreren aurkakoek badakite hori eta usu dabilta gaia plazaratzen. Herriko etxeko oposizioaz gain, herritar kolektibo bat ere dabil hirigintzako dokumentu horri buruzko desadostasuna entzunarazten eta baliteke botoaren bidez ere zigortzea. Diotenez plan horren ondorioz 164 hektarea dira gunera eraikigarritik nekazaritza eremu ala gunera natural izatera pasa, bertan eraikitzeke debekua ondo-

rioztatuz. Kontua da Baionatik hama-bost kilometrotara den hiri horrek jende parrasta erakartzen duela eta etxea eraiki nahi duenarentzat kostaldean baino eskuragarri duela lurra. 5.000 biztanle zituen Uztaritzek 2000. urtean eta 7.000 inguru ditu gaur egun. Nahi edo ez, etxe eraikuntza ez mugatzeak laborantza lurren desagerpena dakar. Baina mugatze horrek interes pribatuak oztopatzen dituenez aurkako mugimenduari aurre egin beharko dio auzapezak hauteskundeetan ere.

Baigorri eta Uztaritzek gain, orokorki emaitza onak lortu zituzten abertzaleek, hauteskudez hauteskunde haien pisua emendatzen segituz. Hogeitabat auzapez abertzale daude Ipar Euskal Herrian. Bukatu da garaia zeinetan aldarrikapen abertzaleak ez ziren kontuan hartuak eta zeinetan alderdi abertzaleak alde batera utziak ziren. Ez, gaur egun politika jokalekuan daude osoki eta bigarren itzuliko arbitro ere dira geroz eta gehiago, boto abertzaleak erabakigarriak izaki.

ZERRENDA "IREKIEN" HAUTUA EGIN DUTE ABERTZALEEK

Senpere ala Sara aparte, herri gutxitan egiten dute abertzaleek "abertzale" etiketaren hautua. Nahiago izaten dute zerrenda zabal bat osatu, abertzaleez gain, ekologistak, ezkertiarrak zein jendarte zibileko militanteak sartuz. Boto gehiago biltzeko estrategia izan dute hori, azken hauteskundeetan geroz eta agerikoagoa gelditzen dena. Horrez gain, ikuspegi transbertsala ukaiteak ere dakar ezkerreko bestelako ikuspegiekin programa bat adosteko ahala. Zerrenda zabal horiek EH Bai-ren sostengua dute: orotara, hogeita hiru zerrenden alde bozkatzeko deia luzatu du koalizioak, ondokoa zehaztuz: "Justizia soziala, Ipar Euskal Herriarentzako trantsizio ekologikoa eta gure lurraldearen burujabetasuna defendatutako duten dinamikak sustengatuko ditu EH Bai-k". Aipatu ditugun herriez gain, Miarritze, Angelu, Urruña, Bidarte, Kanbo, Hiriburu, Azkaine, Ahetze, Itsasu, Larresoro, Zuraide eta Aiherran dira abertzaleez ere osaturiko zerrendak. EAJ-k ere orotara hamasei hautagai ukanen ditu hainbat herrietako zerrendetan (Baiona, Miarritze, Donibane Lohizune, Ziburu, Urruña, Arrosa eta abar).

Deszentralizazio eta parekidetasun handiagoren beharra du Euskal Elkargoak

Euskal Hirigune Elkargoko hautetsiak ere hautatuko dituzte martxoaren 15 eta 22ko hauteskundeetan. Lehen hiru urteen balorapen baikorra egiten baldin bada ere, behin baino gehiagotan kritikatu izan da kostaldearen eta baserri munduaren artean sendi den desoreka. Nola ez, parekidetasun eza ere balorapen ezkorren artean da.

Herriko Kontseilua hautatzeaz gain, Euskal Hirigune Elkargoa osatzeko boza emanen dute Ipar Euskal Herriko herritarrek martxoaren 15 eta 22an. 1.000 biztanletik beherako herrietan herriko kontseilu berriak du hautatuko elkargorako ordezkaria. Auzapeza izan ohi da ordezkari, legeak horretara beharturik. Mila biztanle baino gehiagoko herrietan haatik hautesleek aukeratu beharko dute elkargorako hautetsien zerrenda, -boto paper berean agertuko dira herrirako zein elkargorako zerrendak-.

2017ko urtarrilean sortu zen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herriak biltzen dituen instituzio hau. Urte luzeetako borrokaren emaitza izan zen. "Ez da eskatzen genuena, estatus bereziko instituzioa zelako hautetsiek eta herritarrek nahi zutena. Hala ere, eskaintzen zigutena hartu eta aitzina egin dugu eta uste dut gauzak ez direla hain gaizki pasa", dio Paxkal Indo Garapen Kontseiluko lehendakariak. Derrigorrez hartu beharreko eskumenez gain bestelakoak ere hartu zituen instituzio berriak, tartean, kultura, hizkuntza politika, trantsizio ekologikoa eta energetikoa zein laborantza izanki. "Harritzekoa da zenbat eskumen hartu dituen Euskal Elkargoak, nehon ez da ikusi horrelakorik! Nahikaria badela erakusten du". 2020rako 625 milioi euroko aurrekontua bozkatu zuten otsailaren 22ko batzarrean. Lehen hiru urteak egituratzeari zuzenduak izan

badira, bigarren agintaldi hau "Ipar Euskal Herriarentzako politika osatzeko" izanen dela dio Indok. Hau da, eskumena modu transbertsanean tratatzeko eta lurraldeari bere osotasunean begiratzeko unea. Ideia azaltzeko orduan, ondoko adibidea eman du: "Barnealdeak ere behar ditu lanpostuak eta bizitegiak. Eskoriatzan diren enpresen gisara, zergatik ez dira Baigorri? Zergatik ez dugu industria Maulen garatuko? Enplegua lurralde mailan banatu behar da, bestela herri desorekatu bat dugu, sekulako auto ilarekin Baiona sartzean".

Euskal Elkargoa egitura zentralizatu egia dela entzun izan da frankotan. Herri gehienak Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi barnealdean kokatuak badira ere haien errealitatek urrun sendi dute instituzioa bertako ordezkariak. Kontua da biztanleriaren araberrako ordezkari izanki, pisu gutxi dutela herri ttipiek eta goi-mailako botere guneetan baserri munduaren presentzia ttipitzen dela. Kritikak kontuan hartuz, egituraren zerbitzuak lurralde guztian bermatzeko engaiamendua berretsi zuten otsailaren 22ko batzarrean. Zentzu horretara doaz lurralde osoan banaturiko hamar "komunitatearen etxeak". Ondoko sei urteetarako kontseilu exekutiboaren osaketa ere moldatzea erabaki dute: orain arte zeuden 25 ordezkarietz gain beste hamar gehituko dituzte, elkargoa sortu aitzin zeuden hamar herri elkargo eremuetatik bana sarraraziz.

Euskal Elkargoaren antolaketa

Lehendakaria 1




Kontseilu exekutiboa 1+15+9


Lehendakari ordeak (15)




Kontseilari delegatuak (9)



Kontseilu iraunkorra 1+15+9+44



Biltzarra 1+15+9+44+164



Euskal Elkargoaren osaketa sufragio unibertsal bidezko hautaketa zuzenaren bidez egin behar lireratekeela diote batek baino gehiagok. Batetik, herritar guztiek –ez bakarrik 1.000 biztanlez goragoko herrietakoek– erabaki ahal izateko osaketa eta bestetik, karguen metaketa mugatzeko. Hori eskatzen dute, besteak beste, EH Bai koalizioak zein Batera plataformak. Baina legeari segi ezinezkoa izanki, beste egitura instituzional bat behar lirerateke. Hots, oinarrizko eskakizunetan zegoen estatus bereziko instituzioa. Hastapenetik gauza bera pentsatzen du Indok: “2017tik argi dut Euskal Elkargoak dauzkan mugak erakutsiko dizkigula eta beste egitura bat galdetzen segitu beharko dugula”.

Emakume eta gizon arteko parekidetasunari begiratuz gero dagoen hutsunea begi-bistakoa da. Soilik %23,60 dira emakumeak. Tamalez, Ipar Euskal Herriaren ispilua dugu: 158 auzapezetatik hamazazpi dira emakumeak. 2013ko maiatzaren 17ko legeari segi, parekidetasuna bermatzea behartuak dira 1.000 biztanlez goragoko herrietako zerrendak. Hots, 158 herrietatik 116k ez dute obligaziorik eta horrek dakar errealitate desorekatu hori.

PAREKIDETASUNETIK OSO URRUN

Tokiko bizitzan emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Euro-par gutuna izenpetuz, urrats inpor-

tantea eman zuen Euskal Elkargoak 2018ko martxoaren 17 hartan. Alta, egun horretako kontseiluan zegoen gizonen falta esanguratsua izan zen. Egun horretan gehiengo zabala osatu zuten emakumeek, seguruenik bertaratzeko interesa ez ikusirik, gizonen artean etxean geratu zirelako. Hala eta guztiz ere, egoera aldatzeko konpromisoarekin segitzen du instituzioak, ondoan dituela Garapen Kontseilua zein Egiazko Berdintasunaren Alde (EBA) kolektibo feminista berria. Ez da dudarik EBak presio lan handia egin beharko duela ondoko sei urteetan ere.

Alta, nahikaria izanez gero, Euskal Elkargoan parekidetasuna segurtatzea erraza lirerateke: gizonen artean auzapezak bere lekua utzi beharko luke zerrendan bigarren lekuan kokaturiko emakumeari. Legea errespetatzeko, elkargarako dimisioa aurkeztu behar luke suprefeturaren ondokoak bere lekua hartzeko gisan. Dena da borondate kontua eta are gehiago herri ttipietan, non legeak ez duen horretara behartzen. Parekidetasunaren gisara, karguen metaketaren mugatzea ere modu berean segurtatzen ahal lirerateke. Baina, Indok ondokoa dio: “Logika edo helburu politiko bat babesteko legean idatzitakoaren kontrako zentzura joatea ez da nagusitzen den joera bat”. Hori horrela da eta seguruenik Euskal Elkargoaren osaketa ez da aldi honetan ere parekidea izanen. ●



Gizona



Emaztea

L Lapurdi

BN/Z

Baxenabarre / Zuberoa



Pentsamendua ez da adituen kontua; elkarrizketa filosofikoak bokazio berdinzalea du

IÑIGO MARTINEZ PEÑA IRAKASLEA

Ohiko filosofoek esan zutena ikastetik harago ez al luke joan behar Filosofia ikasgaiak? Nola i(ra)ksten da pentsatzen? Zergatik ez hasi Filosofia ematen Batxilerra baino lehenago? Nola ebaluatzen da filosofia? Zein ekarpen egin diezaioke filosofiak egungo hezkuntza –eta gizarte– ereduari? Ezinbestean, galderaz gainezka hurbildu gara filosofia eta hezkuntzaz solastera, Iñigo Martinezekin.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Zein leku du gaur egun Filosofia ikasgaiak Hego Euskal Herriko hezkuntzan?

Egoera tamalgarria da. LOMCE legeak murrizketa izugarria ekarri zion ikasgaiari, hogeita bost urtetan ikasgai batek inoiz jasandako handiena. EAEn, Batxiler ikasleek aukeratu behar dituzten lau adarretatik bakarrean dago Filosofia, eta dago hautazko gisa. Nafarroan, adar bakarrean baita ere, baina derrigorrezko. Izan ere, legeak zirrikituak uzten ditu erkidego bakoitzak nahi izanez gero moldaketak egiteko eta hainbatek Filosofiaren aldeko apustua egin dute (Katalunia, Asturias, Andaluzia eta Extremaduran Batxilergo adar guztietan eskaintzen dute), baina Hego Euskal Herrian ez.

Bestalde, ikaslearen hezkuntza ibilbidean Filosofia ez da existitzen eta bat-batean Batxilerrean agertzen da, parakaidista baten moduan eta gutxi batzuentzat; isolatuta geratu da. Gure itxaropena eta aurreikuspena da Espainiako Gobernu eratu berriak berriro Fi-

losofiari lekua egitea eta horrek nolabait presionatzea Hego Euskal Herriko gobernuak berdin egitera.

Zergatik da beharrezkoa filosofia eskolan ematea?

“Normaltasuna” zalantzan jartzeko eta esnatuago bizitzeko. Filosofia da galdere-tara irekia egotea, eta galderak dauzkagula onartzen badugu, onartzen dugu baita ere ezjakintasuna. Apaltasun hori eta zalantzan jartze hori dogmatismoaren eta autoritarismoaren kontrako antidotoa izan daiteke, erantzun erabatekoak dire-lako totalismora garamatzatenak.

Filosofia da dena ez dakigula onartzearen eta jakiteko dugun gosearen arteko motorra; pertsonon berezko zerbait. Gure galderak, hutsuneak eta ahuleziak elkarrizketa filosofikoan partekatzeak balio politiko interesgarria du, bestela gaur egun ikusten dugun bezala adituek eta kudeatzaile ekonomikoek baino ez dute hitz egiten, beraiek balira bezala jakintzaren jabe. Sokratesek

zioen auzitan jarri behar dela boterearen alde dagoen eta jakintza bere esku dagoela diotenaren hitza.

Batxilerra baino lehenago, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ere ez al litzateke mesedegarria filosofia lantzea?

Egia da ikasleak nerabe diren garaia (DBH eta Batxilerra), sasoi bereziki aproposa dela guraso eta irakasleengandik jasotako erantzun aurrefabrikatuak zalantzan jartzeko. Nerabezaroa badelako etapa apurtzaile bat, eta oso ongi dator-kie hezkuntzan propio toki bat izatea galdera existentzaileri heltzeko, bizi-bizi eta tripetatik etortzen zaizkielako galderak. Dena den, aurretik filosofia jorratzea ere mesedegarria da, Euskal Herriko Jakin-min elkarteak adibidez haurrentzako filosofia lantzen du. Filosofiak berak badu haurtzaroarekin loturarik: “Zergatik?” galdetze etengabe hori. Elkarrizketa filosofikoa da aurrekoak esandakoa aintzat hartzea, elkarri entzutea, argudiatzea,



bestearen lekuan jartzea... eta hori guztia hurrekin lantzea litzateke nolabait giro asanbleario bat txikitatik klasera eramatea; egun dugun elkarrizketa eredu telebisiboa (elkarri ez entzutea, bestearen gainetik jartzea, oihuka aritzea...) baino aberasgarriagoa.

Ingalaterrako eskoletan jorratu dute filosofia hurrekin eta aipatu dute horren ondorioz hobekuntzak nabaritu dituztela beste ikasgaietan, aipaturiko giro horregatik (elkarri entzuteko jarrera, arreta eta abar).

Filosofia ikasgaia bezain garrantzitsua izango da filosofiaren balore horiek beste ikasgaietara zabaltzea, ezta? Bestela balirudike Filosofia ikasgaien baino ezin direla jarri gauzak auzitan...

Filosofia jarrera bat da, kuriositatetik, harriduratik sortua, eta edozein jakintza arlotan mantendu daiteke. Pentsamendu kritikoa ez da filosofiaren monopolioa eta hain juxtu kontrakoa aldarrikatu behar

dugu, interesgarriagoa delako oinarrizko galderak egitea edozein jakintzatan. Matematiketan adibidez, zer dira zenbakiak? Errealak dira eta naturan daude ala gure asmakizuna? Historian, zeintzuek izan dute errelatoaren monopolioa? Zuzenbidean, zer da eskubidea izatea?... Ikasgai guztietan du zeresana filosofia. Filosofia ikasgaien ikasitakoak balio diezaiela beste arloetarako eta batez ere bizitzarako, pertsona moduan.

Historia idatzi dutenen errelatoa auzitan jartzea aipatu duzu. Ez al dago errelato nagusiaren arrisku bera Filosofian, ohiko filosofo zerrenda ikasi behar horrekin?

Curriculumarekiko ikuspegi kritikoa zabaltzen ari gara pixkanaka, esaterako emakumeen ahotsak sartuz (Maria Zambrano, Hannah Arendt...), Marina Garcések aldarrikatzen duen geofilosofia eginez (Afrika, Asia edota Ameriketako pentsalariak kontuan hartzen, ez soilik europarrak)... Garrantzitsua da birpen-

“

Gure galderak, hutsuneak eta ahuleziak elkarrizketa filosofikoan partekatzeak balio politiko interesgarria du, bestela adituek eta kudeatzaile ekonomikoek baino ez dute hitz egiten, jakintzaren jabe bailiran”

“Nerabezaroa etapa apurtzailea da, eta oso ongi datorkie hezkuntzan propio toki bat izatea galdera existentzailei heltzeko, bizi-bizi eta tripetatik etortzen zaizkielako galderak”

tsatzea pentsalarien ahotsak: zergatik batzuk eta ez besteak, zergatik berreskuratu isilduta egon direnak.

Eta klasea mugatzea filosofoen transmisio hutsera ere ez da izango oso aberasgarria, eztabaida baldin bada filosofiaren oinarri.

Oreka aurkitu behar da, pentsalarien historian dauden testuen eta gaurko munduaren artean. Hartu dezakezu Platonen *Oturuntza*, ikusi maitasunari buruz zer esaten duen, baita Baumanek maitasun likidoaz eta kleenex harremanez dioena, eta gero klasean eztabaidatu dezakegu zer den norberarentzat maitasuna. Testigantza horiek eta ondare hori jasotzea baliagarri zaigu, gure erantzunak bilatzen ahalegintzeko sortuko dugun elkarrizketa aberastu egiten dutelako. Nola ulertzen dugu maitasuna, gaur egungo kontsumo gizartearen? planteatu dezakegu klasean.

“

Hezkuntza lehiakor-depresiboa bizi dugu eta filosofiari bereziki eragiten dio, oso zaila delako erantzun jakinik gabeko gaiak test moduko ebaluazioan kalifikatzea”

“Opus ereduari da zabaltzen: puntako teknologia eta espezializazioa indartzen da, eta baloreak Erljioaren esku uzten dira”

Eta elkarrizketa horietan, kritiko eta eztabaidarako prest ikusten al dituzu ikasleak?

Beti dago gazteak demonizatzeke joera, belaunaldien arteko talka. “Gaur egungo gazteak ez dira kritikoak”, diogu sarri helduok; topikotan jausten gara, baina karikaturatik atera eta gazteak zintzoki entzuteko espazioak eraiki behar ditugu. Duela urte batzuk guztiz hautazkora zen bideo-foruma abiatu genuen jolasorduan, 5 minutuko film laburrak jartzen genituen hainbat gai lantzeko, eta nahiz eta ebaluazioan eraginik izan ez, gela

bete egiten zen. Elkarrizketarako espazio eroso bat lortu genuen.

Ebaluatzeaz ari zarela, filosofatzeak behar duen patxadari nola eragiten dio curriculumaren eta ebaluazioen morrontzak?

Gaur egungo ideologiaren presio orokorra da: ebaluazioaren eta programazioaren tirania bizi dugu. Dena ebaluatu behar da, dena kuantifikatu, laukitxoetan eta zenbakitan, gainera ez-dakit-nongo rankingerako baliagarria izan dadin, eta makinaria horrek ito egiten gaitu. Zer esanik ez Batxilerreko bigarren mailan, selektibitatearen presiopean. Gizarte eta hezkuntza lehiakor-depresiboa bizi dugu eta filosofiari bereziki eragiten dio, oso zaila delako erantzun jakinik gabeko gaiak test moduko ebaluazioan kalifikatzea. Niretzat, ikasle batek klaseko elkarrizketaren erdian ikaskideari esateak “jo, ze ona esan duzuna, ekarpen hori interesgarria iruditu zait honengatik eta hargatik” balioa du, eta batzuetan buletinean ageri den zenbakia kontu administratibo bano ez da. Nola lortu bestelako ebaluazioa? Hor dago kokka.

Nola irakasten/ikasten da pentsatzen?

Ez dago formularik. Inportantea da elkarri entzutea, galderak arin ez ixtea, zureak ez diren ikuspuntuak ezagutzen saiatzea, enpatizatzen jakitea (fikzioa lagungarria izaten da maiz horretarako, literatura, zinema...), eta kritikak egiteko eta jasotzeko prest egotea. Pentsamendua ez da adituen kontua eta horregatik bokazio berdinzalea du elkarrizketa filosofikoak, denon esku dagoelako. Gaur egun pentsamendua gero eta gehiago ulertzen dugu kalkulu moduan (ikasle algoritmoek hartu duten nagusitasuna) eta pentsamendua ez da kalkulu hutsa, ez da hain metodikoa, pentsamenduak sarri eskatzen duelako birpentsatzea, bidean galtzea eta hanka sartzea, zeharkako bideak hartzea... Ikasgaiaren helburua da kalkulutik kanpoko pentsamendu hori sustatzea. “Zer da justua izatea edo ona izatea?” gisako galdera filosofikoek giza-bizitza zeharkatzen dute, eta hor ez dago kalkulu posiblerik.

Gai kontzeptualak planteatzen dituzu ikasgaietan?

Testu klasikoak lantzen ditugu eta erronka da testu horiek zelan ekarri gaurko mundura eta ikasleen zirrara existentzialerara. Irakurtzen badugu Platonen Errepublikak,



galdetuko diogu gure buruari adibidez zein den politikari justu baten profila, eta hori gaurko gizartera ekarri dezakegu. Ohitura dut gainera gaiari lotuta ikasgelara jendea ekartzeko, eta kasu horretan herriko zinegotziren bat gonbidatzen dut, bere testigantza entzuteko. Kant pentsalariak zentsuraz hitz egiten du eta Axier Lopez ARGIAko kazetaria gonbidatu izan dut adierazpen askatasunaz hitz egiteko, Kalea Guztiona Da ekimenaz, sare sozialeko zentsuraz. Charlie Hebdorena gertatu zenean ere Martxelo Otamendi *Berriako* zuzendaria etorri zen, atentatuaren ostean egunkarian karikatura publikatu ala ez dilemaz eztabaidatzeko, langile mugimenduari buruzko testigantza ere jaso izan dugu Imanol Olabarriaren eskutik... Gai unibertsalak hezuramaitzen laguntzen dute eta ikasgaiak ez dirudi azterketa gaintzeko zerbait, gizartearekin eta bizitzarekin lotura zuzena duen zerbait baidarik. Filosofoen ahotsaz gain beste ahots hauek entzutea aberasgarria da; testuei bizitza ematen diegu eta ikasleek asko eskertzen dute.

Zein garrantzi du filosofiak beste herrialdeetako hezkuntza ibilbidean?

Joera da filosofia eta orokorrean humanitateak baztertezea. Jair Bolsonaro Brasilgo presidentek filosofia eta soziologia baztertu ditu Hezkuntza Legetik, argudiatuz ez dutela zergak biltzeko berehalako ekarpenik egiten. Kontua da ea gai



MARTINEZEK UTZIAK

ARRAKASTATSU. Ezkerreko argazkian, Pentsatu Jaialdia. Eskuinekoan, pote filosofoak: "Arrakastatsuk izaten ari dira, nahiz eta harrigarria iruditu arrakasta hitza filosofiarekin lotzea", dio umoretsu Martinez Peñak.

garen hezkuntza eta pertsonen denbora eredu ekonomizistatik kanpo ulertzeko. Hori da gure borroka, eredu merkantilistak ez itotzea eskola eta pentsatzea eskolak ez direla enpresa. Opus ereduari da zabaltzen: puntako teknologia eta espezializazioa indartzen da, eta aldi berean Erljioak lekua irabazten du. AEBtan asko ikusten da hori: hiper-garapen teknologikoarekin batera, baloreak erlijioaren esku uzten dira, erlijioak izango balu bezala baloreen eksklusibitatea. Israelgo irakasle batek esan zidan han ez dagoela filosofiarik, zientzia eta erlijioa dutela, eta sintomatikoa iruditzen zait.

Filosofiaren defentsak liburua (Erein, 2017) koordinatu zenuen. Hainbat diziplinetako jendeak filosofiaren beharra azpimarratzen du bertan. Jakintza arlo ezberdinetako jendeak gonbidatu genituen eta oso baikor erantzun zioten erronkari: fisikarekin, poesiarekin, matematikarekin, zuzenbidearekin... filosofiak duen harremanaz mintzo dira bertan. Filosofiaren defentsa bai, baina biktimismoan jausi gabe, jakintza-gaien arteko elkarriketa eraikitzea ere izan genuen helburu.

Agora elkartearen, filosofia ikastetxeetatik kanpo ere

ikasleengana eta oro har herritarrengana gerturatzeko lanean ari zarete.

Duela bost urte inguru sortu genuen filosofia irakasleok Agora, eta ikasgaiari buruz aritzetik harago, filosofia kalera eramateko desirak bultzatu gintuen Kafe edo Pote Filosofikoak ekimena antolatzera. Duela hiru urte abiatu genuen ekimen xumea da, baina oso harrera ona izaten ari da (Gasteizen hasi ginen, gero zabaldu genuen Bilbora, Goierri aldeko herrietara, Tolosaldera...) eta ikusten ari gara interesa dagoela, gazte eta helduengan. Taberna batean gai baten inguruan eztabaidatzeko norbait gonbidatzen dugu (heriotzaz, post-egiaz, mito eta estereotipoen, desobedienciaz...) eta gaudenon artean elkarriketa sortzen dugu. Filosofia, azken finean, kalean jaio zen eta tentsio hori badauka: Platonen akademia dago eta Diogenesen kupela. Ez dugu filosofia akademizismora murriztu nahi eta elkarrekin pentsatzeko eta hitz egiteko foroak, harremanak egiteko foroak eraikitzeak berezko balioa du.

Pentsatu Jaialdia ere antolatzen dugu Agoratik, EHUrekin batera. Filosofiako fakultatean tailerrak eskaintzen ditugu (filosofia eta maitasuna, filosofia eta zientzia, filosofia eta zinema...) eta Euskal Herriko txoko ugariatuko institutuko ikasleak etortzen dira, egunpasa. Azken

jaialdian 500 ikasletik gora izan ditugu eta oso pozik gaude, sentitzen dugu badagoela filosofia gosea.

Eta iaz, lehenbizikoz, Olinpiada Filosofikoak antolatu genituen Batxilerreko ikasleen artean. Gai bat jartzen zaie (iaz, "errealitatea eta itxuraren arteko talka") eta horri buruz idatzi behar dute.

Zein da egungo gizarteari filosofiak egin diezaiokeen ekarpen nagusia?

Bat-batekotasuna eta urjentzia baretzeko balio dezake. Krono-kompetentziaren menpe bizi gara, dena orain egin behar da, emaitzak ere orain lortu eta erakutsi behar dira, eta horrek sortzen duen antsietatea ez da txikia. Filosofiaren denbora bestelakoa da eta denbora hori gure bizitzetan sartzea oso lagungarria izan daiteke, errendimendua eta hiztegi ekonomiko-enpresariala arlo guztietara zabaldu dugulako: emozioen kudeaketa, oporren antolaketa, gure kirol jarduerak...

Info-obesitatea bizi dugun honetan, informazio hori guztia interpretatzeko eta zalantzan jartzeko gelditzea eta denbora hartzea ere beharrezkoa da, horretan ere laguntzen du filosofiak. Eta bes-tetik, hitza nahiko debaluatuta dagoen garaiotan, elkarri entzuteko eta hitza aintzat hartzeko ere balio du. ●

OLLAKARIZKETAKO FUSILATUAK

Lurrak garrasika jarraitzen du

Francoren heriotzaren ondoren, 1936ko fusilatuen senideak haien gorpuak berreskuratzen hasi ziren Nafarroan. Hasierako desobiratze haiek ezkutuan egin ziren, erakundeen laguntzarik gabe; hainbat herritar eta apaiz konprometituren ekimena izan zen, Ollakarizketako hobian 1979an Sartagudako bizilagunek egindakoa kasu. Baina berrogei urte geroago jarraitzen dugu lur beretik hezurak ateratzen. Nola liteke?

 URKO APAOLAZA AVILA  MAURO SARAVIA

1 980ko otsailaren 23an, duela 40 urte, Erorien Haranean ehortzita zeuden 133 nafarren gorpuak berriz itzuli zituzten euren sorterrira: Azagra, Lodosa, Allo, Larraga, San Adrian... Francoren obra kolosala betetzeko lapurtuak izan ziren urte batzuk lehengo. Lekualdatzea isilean negoziatu zen UCDren gobernua-rekin, eta balio du irudikatzen 1936ko fusilatuen senideek zeukaten antolaketaren maila eta egindako lan eskerga. Gaur egun, toki ilun hartatik hezur bakar bat mugitu nahi duenak harlauza judizial handi batekin egingo du topo.

Trantsizioko urte haietan baina, senideak azkar mugitu ziren eta Nafarroako hainbat tokitan frankistek gerra zibilean bide bazterretan utzitakoak desobiratu zituzten. Sartagudako bizilagunek 1979an ekin zioten Ollakarizketan –Iruñetik dozena bat kilometrora– aitzur kolpez lurra mugitzeari: hamazazpi gorpu aurkitu eta soinean zituzten objektuen bidez jakin zuten euren senideak zirela.

Hamarkadatan isilik eta zapalduta egon ondoren, emozioak dantzaz zebiltzan: “Negar asko egin dugu, asko. Baina gustura gaude herrian daudelako berriz, ez baitzituzten inoiz eraman

behar”. Lucía eta Mari Carmen Morenok desobiratzeaz egindako egutegian ageri dira sentimendu horiek guztiak, argazki, zerrenda, ohar eta poemaz osaturik; Nafarroako Memoriaren Dokumentazio Zentroan gordetzen da altxorra.

2019ko irailean Arazandiko teknika-

riek berriz induskatu dute eremua Nafarroako Gobernuak eskatuta, eta oraingoan ere Lucía bertan izan da. Beste hogeitaz lagunen gorpuzkinak azalerazi dituzte Ollakarizketan, baina gehiago egon daitezkeela uste dute. Berrogei urte geroago lurrak garrasika jarraitzen du.







1979KO EGUTEGIA Lucia eta Mari Carmen Morenok egutegi antzeko batean utzi zituzten Sartagudako herritarren bizipenak, 1979an haien senideen hezurak lurpetik atera zituztenean. Nafarroako Memoriaren Dokumentazio Zentroan gordetzen da altzorraren kopia bat.

GORA SARTAGUDA!

1936an gerra lehertzean, erretagoardian harrapatuta geratu ziren nafar errepublikar ugari eta fusilatua izan ziren sistematikoki. Erriberako herri ezkertiarrek sufritu zuten krimen hura gehien, baina haien artean Sartaguda ikur bilakatu da. Piperrak punk taldeak 90eko hamarkadan abesten zuen gisan, “beti muturreko eta gogor, beti erradikal”.

Sartagudako jaun eta nagusi Infantadoko dukea zen, bera zen etxe zein soro guztien jabe, berak agintzen zuen zeini eta zein preziotan “alokatu” lurra. Hala, Bigarren Errepublikan justizia sozialaren alde borrokatu izana odolez ordaindu zuten sartagudarrek: 86 pertsona fusilatutakoak, 1.200 biztanleko herrian. Egun, Infantadoko dukearenak ziren 6.000 metro koadroko espazioan Oroimenaren Parkea jaso dute, Nafarroan faxistek hildako 3.500 lagunengatik.

Erreketek eta falangisten krudelkeria oso urrun iritsi zen 1936ko hilabete haietan. Jendea modu basatian hiltzeaz gain, haien gorpuak han eta hemen barreiatu zituzten, gertuko desesperazioa eragiteko asmoz –Azkoiengo fusilatua, adibidez, 33 toki desberdinetan lurperatu zituzten–. Ez da harrizkoa

beraz, fusilatuen senideak oraindik lurralde osoan barna ibili behar izatea hezur bila, Sartagudakoak 1979an ibili ziren bezala.

2015ean aldaketaren gobernua marxtan jarri zenetik 109 gorpu berreskuratutakoak Nafarroan 23 hobitatiek –horietako bat da Ollakarizketakoa– eta 2020an beste hogeita indusketa egitea aurreikusita dute. Nafarroako Memoriaren

Desesperazioa sortu
asmoz, fusilatuen
gorpuak barreiatu egin
zituzten 1936an

Institutuak osatutako mapa interaktiboan ageri denez, hirurogei hobi baina gehiagotan ez da esku hartu oraindik.

Ollakarizketan bertan ere hobi bat baino gehiago dago. 1936ko azaroaren 16an Iruñeko kartzelatik atera zituzten Sartagudan atxilotutako pertsona ugari, eta Ollakarizketako Iruzkun kontzejuko

borda baten barruan gau osoan eduki ostean, hurrengo egunean fusilatutakoak ziren denak. “Buru hezurak zulatuta”, “besoa hiru tiroarekin”, “burua hautsita”, “buru gehiago”... Halaxe deskribatzen du Moreno ahizpen bildumak, argazkiz argazki, 1979an lurra mugitzen hasi zirenean aurkitu zutena.

NAFARROAN INON BAINO LEHENAGO

Gerra zibilean fusilatutakoak bilatzen eta desobiratzen Espainiako Estatuko lehenengotakoak izan ziren Nafarroan. Zergatik? Paloma Aguilar politologoak *Kamchatka* kultur aldizkarian azaldu duenez “Nafarroan askok ez zuten itxaron lehen udal demokratikoa osatu arte, horrek erakusten du beste babes bat izan zutela eta hobeto koordinatu zirela”. Herrietan gestora batzordeak sortu ziren –sarritan apaizek lagunduta, baina beti herri ekimenetik– eta *itzulera operazioa* jarri zuten abian, Azkoiengo Josefina Camposen eskutik.

Horrek guztiak aurretik inurri lan handia behar zuen ordea: Jose Maria Jimeno Jurio ikerlariarena. 1974an ekin zion fusilatuen zerrenda osatzeari, eta urteak eman zituen datuak biltzen eta



2019KO INDUSKETAK

Ollakarizketako hobia Nafarroako hirugarren handiena da; azken indusketetan beste 20 lagunengorpuak berreskuratu dituzte. Aranzadiko teknikaren lanak jarraitzen izan ziren ikasleak, erakundeetako ordezkariak eta herritarrak. Goian ezkerrean, Lucía Moreno, duela 40 urte toki berean hezurak ateratzen aritu zen sartagudarra ageri da kaosaren erdian eserita, hobiari begira.

emaitzak publikatzen *Punto y Hora* aldizkarian, heriotza mehatxuak tarteko -Pamiela argialetxeak bi liburukitan kaleratu berri du lan hori guztia orain-. 1978ko martxoan Marcillan 38 hildakoren aldeko meza eta omenaldia egin zen lehen aldiz, ondoren etorri ziren Erriberako beste hamaika herritakoak: Azkoien, Faltzes, Andosilla, Carcar, Caparroso... "Baina ez zen erraza izan -dio Aguilarrek- oztopo administratiboak gainditu behar izan zituzten, baita hori guztia atzean utzi behar zela uste zutenen ezin ulertua ere".

Apaizek, beraien homilietan behin eta berriz errepikatu zuten fusilatuen oroimena berreskuratzeko saiakerak ez zuela intentzio politikorik; inkontrolatuen eta Sanfermin gorrien garaia dira... Hainbat iturriren arabera Nafarroan eta

Errioxan zientoka lagun desobiratu zituzten 1978-1981 epealdian. Gero estatu kolpe saiakera gertatu zen, eta berriz ere urteetako isilunea, 2002an Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak sortu zen arte.

"TIROA JOTZEN ZIETEN BIHOTZEAN"

Ollakarizketan iaz egindako indusketa- ren lehen hari muturra *Eusko Folklore*-n 2007an argitaraturiko ikerketa etnografiko batetik dator. Felix Etxaleku bizilagunaren testigantza harrigarria jasotzen zuen: "Egun hartan 17 ekarri zituzten binaka lotuta, bordan sartu zituzten bildotsak balira bezala, eta jadanik lotu gabe, pistoladun batek tiroa jotzen zien bihotzean, bigarren batek azken tiroa jotzen zien gero. Hobira erdi tente botatzen zi-

tuzten, zutik, gehiago kabitzeko. Ez dut sekula ahaztuko".

2018an Fernando Mikelarena historialariak lekukotza horri erreparatu zion, hilketa masiboa oso ondo deskribatzen zuelako. Areka elkarteko Orreaga Oskotzekin batera txostena osatu zuten Nafarroako Oroimenaren Institutuaren-tzat, toki horretan prospekzioak egin ahal izateko.

Prospekzio horien emaitzak eskuan, 2019ko irailaren 30ean goizeko 9:00etan hasi ziren lanean Aranzadikoak, baina ez zeuden bakarrik, begira izan zituzten bigarren hezkuntzako 150 ikasle eta beste hainbat jende ere. Denera lau hobi eta hogeita lagunengorpuak aurkitu zituzten bi egunetan. Handik gertu, Txulapaingo zonaldean, hobi gehiago daudela uste dute. ●

NAFARROAKO HEZKUNTZA

Castejon, PAI programaren atzaparretan

Azken hilabeteetan Nafarroan euskarak izan dituen erasoak salatzeko milaka pertsona enegarrenez kalera atera da Iruñean. Mendigorrian D ereduari emandako ezetza eta Iruñean haur eskolak erdira jaitsi izana dira kasurik entzutetsuenak. Eta zeharka bada ere, PAIren auzia berriz ere gurutzatu da debekuen dantzan.

XABIER LETONA

Ingelesa aparretan da gure gizartean eta, oro har, edozein esparrutan ondo hartzen da ingelesezko edozertan sakontzea. Horren ondorioz zabaldu da Ingelesez Ikasteko Programa (PAI gaztelaniaz) Nafarroako hezkuntza publikoko zentro ugariara. UPNk eta PSNk D ereduaren zabalkundearen aurkako tresna gisa ere erabili dute azken hamarkadetan. Orain, ordea, Nafarroako Erriberako Castejongo Dos de Mayo Ikastetxe publikoak PAItik ateratzeko eskaera egin du, baina Hezkuntza Sailak galarazi egin dio.

Erabakiak hautsak harrotu ditu, teoriarik programari honetan sartzea edo ateratzea ikastetxe bakoitzaren autonomia eremuan sartzen delako. Ikastetxeak urtarilaren bukaeran ebatzi zuen 2020-2021 ikasturterako PAI programatik aterako zela. Eskolan, halaber, ikasturte honetan ireki da D ereduko lehen lerroa, D-PAI bihurtu dena.

PAItik atera nahi izan duen lehen ikastetxea izan da eta horrek sona berezia eman dio erabakiari. Navarra Sumak (NS) eta PSNk, adibidez, Castejongo Udaleko osoko bilkurara eraman zuten gaia, eskolari atzera egin zezala eskatzeko. Bozketan berdinketa egin zuten eta alkatearen (Ezker Batua) kalitatez-

ko botoarekin bota zen atzera eskaera. PSNren eta NSren salaketan arabera, gurasoen aurkako iritziarekin hartu da erabakia eta “muturreko sektore nazionalisten” presioarekin.

Errealitatea urruti dago ikuspegi horretatik eta zentroaren erabakian batez ere arrazoi pedagogikoak nagusitu dira, irakasleen klaustrorik publikoki argi adierazi duenez. ARGIAk Eskolako zuzendaritza taldeko kide batekin hitz egin du eta bere esanetan, “argi ikusten dugu haurrak ez direla iristen behar den ezagutza mailara eta horregatik erabaki dugu ateratzea”. Duela bost urte ekin zioten programari eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailaraino iritsi dira. Legeari begira, programan gutxienez lau urte egin behar dira hartatik ateratzeko.

Eskolako klaustroraren eta Eskola Kontseiluaren hausnarketa prozesu luze eta sakonean dago oinarrituta erabakia. Iaz ere ahalegindu ziren, baina ez zuten astirik izan irteera prestatzeko eta aurtengorako utzi zuten. NSren aburuz, ikastetxearen erabakia “arduragabea, presazkoa eta burugabea” izan da.

Irakasleen %80aren sostenguekin, klaustrorik tinko erantzun dio Navarra Sumari, esanez ez direla konfrontazio



PLAZA PÚBLICA

politikoan sartuko: “Hala ere, ezin dugu utzi alderdi batek klaustrorik irakasleen profesionaltasuna eta koherentzia zikindu ditzan, hauen helburu bakarra gure ikasleriaren hezkuntza kalitatea hobetzea dena”. Irteeraren aurkakoek zuzendaritzari leporatu diote familien erabakien aurka aritzea, hauek “urte urte libreki erabakitzen dutenean beren seme-alabak PAI programan matrikulatzea”. Eta klaustrorik dio ezetz, izan ere, herrian ez baitago beste aukerarik.

Komeni da jakitea zentro bat PAIn hasten bada, hurrengo ikasturte guztiak ere programa horretan hasi behar direla ezinbestean, izan G, A edo D eredu. Nafarroan 77 zentrorik eskaintzen dute G-PAI programa, 68k A-PAI eta 18k D-PAI. Gaur egun PAI programa, praktikan, hizkuntz eredu ginetik dago eta dagoen tokietan, haurrak ezinbestean programa horretan matrikulatu behar dira. PAI programak eskatzen du astean 8 eta 14 orduko tartean aukeratzen den



CASTEJONGO DOS DE MAYO ikastetxean antolatutako azoka ezkerreko argazkian; eta eskuinean, biolentzia matxistaren aurkako bilkura bat eskolan.

ordu kopurua ematea ingelesez (D eredu-
duan apur bat gutxiago).

Programaren aurkako askok salatzen duenez, ingelesez ematen diren edukien maila jaitsi egiten da. Gainera, ikasle askok ditu edukiak barneratzeko arazoak, “eta eskola publikoak izan beharko litzuke alternatibak horientzat, adibidez programa horietatik ateratzea”. Azken finean, “zailtasunak dituztenei ez zaie besterik eskaintzen”, salatzen dute askok hezkuntza munduan. Irakasleei ematen zaien prestakuntza urria, baliabide kurrikularrik ez izatea, plangintzarik eza eta bitarteko falta ere azpimarratzen dira gabezien artean. Horren guztiaren ondorioz atera nahi dutela dio Castejongo klastroak.

ERABAKI POLITIKOA JANTZI TEKNIKOZ MOZORROTU DA

Nafarroako hezkuntzako sektore askotan haserrea piztu du Hezkuntza Sailaren erabakiak. LAB, Steilas, ELA eta

CCOOk gogor salatu dute Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilaria eta eskolaren autonomia errespetatu dezala eskatu diote. Departamenduak dio ikuskarien esanetan irteera plana ez dagoela ongi justifikatua. Ikuskatzaileak bi arrazoi jarri ditu mahaiaren gainean: bat, “ez da aipatzen programatik atera ondoren nola geldituko den langile plantilla”; eta bi, “ez du kontuan izan 147/2016 Foru Agindua, non zehazten den zentroak bermatu beharko duela programaren jarraipena finkatuta dagoen kurtsoetan”. Dos de Mayo-ren esanetan, biak aurkeztu dituzte.

Hezkuntza Saileko Mikel Muez kabineteko buruaren arabera, departamenduak ezin zuen beste erabakirik hartu: “Ikuskatzaileek esan dute zentroak ez duela bete arautegiak eskatzen duena, beraz, Hezkuntza Departamenduak ezin du onartu zentroaren eskaera. Horren sinplea da. PAIn sartzea edo ateratzea arautzen duen foru agindua aurreko go-

bernuak egin zuen, eta guk bete besterik ez dugu egin”.

Muezek erantzukizuna ikuskatzailearen bizkar utzi du, baina bistan da auzia hori baino korapilatsuagoa dela. Esate baterako, Mendigorriko kasuan, ikuskatzaileen arduradunak bideragarri ikusi zuen D eredu sei haurrekin irekitzeko eskaera, baina Hezkuntza Departamenduak arauetara jo du ezezkoa argudiatzeko: “Zortzi haur behar dira”. Hezkuntza sailak nahikoa zuen esatea “ikuskatzaileak esan du eta aurrera”, baina ez, justu kontrakoa egin du.

Ez da hori, ordea, Departamendua-
ren borondate eskasaren adierazle bakar-
karra. Une batez, imajina dezagun egia
dela, zentroak ez duela ondo bete irteera
eskaera. Administrazio munduan maiz
gertatzen dira halakoak, eta eskolei edo
bestelako erakundeei sarri esaten zaie
zer egin duten gaizki, nola egin behar
duten eta eskaera egiteko epe berria
eman. Horixe bera adierazi diogu Muez

kabinete buruari, baina honek erantzun du aipatu foru arauak ez duela horrelakorik aurreikusten eta datorren urtean aurkeztu ahal izango dutela berriz irteera plana, hala nahi badute.



NAVARRA.ES

CARLOS GIMENO Hezkuntza kontseilaria (PSN)

SOLANA: "LEGEA BETE BEHAR DA"

147/2016 Foru Araua Uxue Barkosen gobernuko Hezkuntza sailburu Jose Luis Mendozaren garaian ezarri zen, 2017an. Hilabete gutxira Mendozaren lekukoa hartu zuen Maria Solanarengana ere jo dugu gaian argi pixka bat jarri nahian, baina ez da erraza. Solana haserre mintzo da Hezkuntza Sailaren erabakiarekin eta, bere ustez, Castejongoak ez du sekretu handirik, "legea bete behar da eta kito, foru arau horrek garbi adierazten du hori nola egin behar den, baina PSN ez da hori egiten ari". Kontua da ez dagoela borondate politikorik, adierazi diogu: "Ez, ez da borondate kontua, legea betetzea baizik", dio tinkotasunez egun Geroa Baiko foru parlamentaria denak. Afera dela eta txinpartak sortu dira Nafarroako Gobernuan eta Geroa Baik eskatu du gobernu akordioaren jarraipen batzordea biltzea.

Labirintoaren une honetara helduta, argi dago auzi honetan, funtsean, Hezkuntza Departamentuaren borondate politikoa eza dela giltzarri. Egia esan, Nafarroako politikaren azken hamarkadetako joan-etorria ezagututa eta PSNk PAIrekin izan duen jarrera ikusita, agian ez zen beharrezkoa hau guzti hau irenstea horretaz ohartzeko. Prozesuaren gora-beherak aztertuta, alabaina, ondorio hori are eta argiagoa da. Azkenean, auziaren muinean dago Nafarroako euskalgintzak eta sektore aurrerakoienean aspalditik eskatzen dutena: gurasoek edo ikastetxeek hautatu ahal izatea nahi duten hizkuntza eredu eta programa inolako inposaketarik gabe. ●

HAUR ESKOLAK IRUÑEAN ETA D EREDUA MENDIGORRIAN

Euskaraz ikasteko eskubidea aldarri

Manifestazioa egin zuten otsailaren 29an. Mendigorrian D ereduko lerroa ireki nahi eta ezezkoa jaso duten gurasoek eta Iruñean euskarazko bi haur eskola gutxiagorekin geratuko diren gurasoek bat egin zuten egoera salatzen eta haserre agertzeko. Ez daude prest euskaraz ikasteko duten eskubideetan atzera egiteko.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Mendigorririko hamaika familiek diote haien haurren matrikulak "linboan" gelditu direla. Haurrak euskarazko lerroan matrikulatu nahi dituzte, herrian, eskola publikoan. Adin bereko sei haur dituzte irailean ikastetxean hasteko moduan. Beste zortzi haurrek A eta G ereduari hasiko lukete ikasturtea. Euskarazko lerroa ireki nahi dutenek ez dakite zer gertatuko den, PSN buru duen Hezkuntza Departamentuak adierazi du legea bete behar dela. Legearen arabera, adin bereko zortzi haur behar dira eskola lerroa irekitzeko eta Mendigorrian sei baino ez daude. Dena den, kopurua arau orokorra da, salbuespenetarako aukera ematen du, adibidez landa eremuko herrietan.

2015ean Euskararen Foru Legean egin zen aldaketari esker D eredu ireki daiteke Nafarroako ikastetxe publiko guztietan, beti ere eskariaren arabera. Legeak dio zortzi haur behar direla, eta aldiz, hainbat herritan D ereduko lerroak ireki dira zortzi haur eduki gabe ere, kontuan izanda landa eremuko herriak direla. Aurreko legegintzaldian, Aldaketaren gobernuaren Hezkuntza Departamentuak horrela jokatu zuen hainbat alditan, baina PSNren gobernuak haur kopuruen baldintza zorrotz betetzeko

asmoa agertu du. Departamentuak emandako irtenbidea orain arteko bera da, hau da, ikasleak ondoko herrira, Garesera eramatea. Eskualdeko ikastetxea da eta eredu guztiak PAIrekin, Ingelesa Ikasteko Programarekin, ematen dira. Mendigorririko familiek salatu dute mehatxuak jaso dituztela Hezkuntza Departamentutik eta esan dietela haurrak Garesen ikasteko bideratutako garraio eta jantoki diru-laguntzak kendu diezazkiekela umeak Mendigorrian matrikulatu nahian jarraitzen badute.

Familien ustez, ikastetxe publikoan euskarazko lerroa guztiz bideragarria da eta baieztapen hori egiteko datu bat eman dute: udal haur eskolan dabilen 0-3 urteko umeen %75 euskarazko irakaskuntzan ari da.

Bideragarriaz gain, Mendigorririko hamaika familientzat herrian D eredu izatea herria bizirik mantentzeko giltza da. Hala adierazi dio Josu Goñi gurasoak Beñat Hach Embarek Irizar kazetariari zuzeu.eus agerkarian egindako elkarrizketan: "Gurasoek dauzkagun datuen arabera, azken hiru urteetan 32 haur jaio dira, eta hurrengo hiru urteetan ez bada D eredu ezartzen, ume horien %52 herritik joango da (hamazazpi ikasle). Euskara nahiko luketen familiek beste eruedetako matrikulak



Milaka lagun bildu ziren otsailaren 29an, Iruñeko kaleetan, euskaraz ikasteko eskubidea defendatzeko.

JAIZKI FONTANEDA / FOKU

gaindituko lituzkete. 32 haurretatik hamazazpi kentzen badituzu, ze etorkizun dauka gure eskolak? Herri txiki batzuetako eskola zabalik mantentzeko giltza D eredia da. Mañeru eta Ziraukikoak itxi zituzten. Jada ez da soilik D eredia nahi duzun edo ez, herrian eskola izateko modu bakarra da, eta aurrerapausoak eman behar ditugu denok”.

IRUÑEAN HAUR ESKOLAK ERDIRA

Azken legegintzaldian Joseba Asiron (EH Bildu) alkate zuen lauko gobernuak euskarazko haur eskolen kopurua bitik laura igo zuen urte batetik bestera. Aldaketen prozedura irregularra izan zela salatu zuen oposizioak, eta arrazoia eman zion epai-leak. Hala, orain, Navarra Sumako

Enrique Maya alkateak eta bere udal gobernuak atzerako bidea egin dute: Iruñean haur eskola euskaldun bakarra Txantrea auzoko Izartegi izango da eta Arrotxapea auzoko Goiz Eder haur eskolaren eskaintzaren erdia euskarazkoa izango da, beste erdia gaztelezkoa izango da ingelesezko jarduerekin. ●



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA

Noiz erein liteke agria patata Goizuetan?

✍️ Josu Eskudero

Patata ereiteko sasoi onena ilbehera da. Hurrengo ilbehera martxoaren 5 eta 17 artekoa izango da. Patatarentzako egun onenak sustrai egunak dira, hain juxtu martxoaren 11 eta 12.

Ondarroako Zaldupe eskolako ikasleak gara, LH 3. mailakoak, eta jakin nahi dugu ea “clavo” hazia euskaraz nola deitzen den. Eskerrik asko.

Pentsatzen dut “iltzea” espeziari edo bizigarriari buruz ariko zaretela galdezka. Iltzea, sukaldean erabiltzen dena ez da hazia, lorea baizik. Lorea lehortu egiten da eta iltzearen forma hori duenez halaxe esaten zaio.

Syzygium aromaticum zuhaitza da, 20 metrora arte ere hazi daitekeena. Iltze-belar izena ere eman izan zaio, adibidez *BIOLOGIA/1 Landare eta animalien izenak* izendegian (UZEI, Donostia, 1984). Nire iritziz egokiagoa da gaur erabiltzen den “iltze” izen soila.

MOKO-BELARRETAN

“Zaldibarko langile, senide eta auzotarrei babes emateko manifestazioan Eibarko Amañatik abiatu ginen. Hasi zain ginela hor non ikusten dudan balkoi bat leiho-geranio lorez bete”.



Udari begira jarri gaituen eguraldi honek landareak ederki mugitu ditu. Gu ere bai. Zaldibarren, Eitzaga auzoko zabortegiko madarikazioaren ardurak eskatzera, eta langileei, haien senideei eta auzotarrei babes emateko manifestazioan Eibarko Amañatik abiatu ginen. Hasi zain ginela hor non ikusten dudan balkoi bat leiho-geranio lorez bete (*Pelargonium x hortorum*). Loretza gorriak begia jo zidan.

Inorekin mokoka edo moskoka hasteko asmo zipitzik ez dut. Mokotik mokora bai ordea, ez guretan, landareenetan baizik. Mokoak duten landareetan ere moko-motzak eta moko-luzeak daude. Hegaztietan bezalaxe. Haiekin lotuta eman diegu, jeneralean, moko-belarrei bere izena.

Moko-motzek beren landareak badituzte, odolur edo odarra esaten diogun *Polygonum avicularis* landareari hormatxori-moko esaten diote gaztelaniaz. Gaur, baina, moko-motzak alde batera utzi eta, Amañako leiho-geranioen aitzakian, moko-luzeei heldu behar diet. Zehazki, *Geraniaceae* familiako moko-luzeei. *Geraniaceae* familiak 700 espezie biltzen ditu, 11 generotan banatuta.

Horietako genero bat da leiho-geranioena, *Pelargonium*, alegia. *Pelargonium* izena grekoko *pelargos* hitzetik dator, hau da zikoina edo amiamokoa. Haien mokoak ekaritzen du gogora bere fruituak. Gehienak afri-

karrak dira eta usaintsuak; apaingarri gisa erabiltzen ditugu, aspalditik.

Amiamoko ere esaten zaio koartzari. Koartza adierazteko grekoko *erodios* hitzetik dator familia honetako beste genero baten izena: *Erodium*. Genero honetako landareen fruituak, ireki eta haziak askatu aurretik, koartzaren buruaren itxura dute, bere moko luze eta guzti. Moko-belarra esaten zaie maiz nahasten ditugun beste bi espeziari, *Erodium ciconium* eta *Erodium cicutarium*. *Erodium*, koartza edo amiamokoa da; *ciconium*, zikoina edo amiamokoa da.

Geraniaceae familiako beste genero mokoduna *Geranium* da. Hori ere grekotik dator, *geranos* hitzetik eta kurriloa esan nahi du. Beste hegazti moko luze bat. Hemen ere fruituaren eta kurriloaren mokoaren antza da gakoa. Hirurehun bat espezie biltzen ditu genero horrek, eta batzuk oso gureak ditugu. Adibidez, zaingorri, zangorri, zango-gorri, gatugorri, katugorri, San Robertoren zaingorri edo kurlo-belar esaten dioguna, *Geranium robertianum*.

Udaberria badoa eta mokodun geranio jende hau loratzeko prest da. Ugaltzeko ere sasoi ederra da: gustukoa topatzen duzunean, adar muturtxo bat kendu eta aldaxka gisa landatu. Zikoina, kurrilo, koartza... berdin da, moko luzeok bere loraldiek in madarikaziorik handiena ere iraultzen dute. ●

ILETEGIA

ARTILEAREN BALIOA BERRESKURATZEN

Duela zazpi urte inguru hasi ziren Aitor Zubillaga eta Aña Andiazabal Iletegia proiektuarekin. Saran: “Joana Urbistondo laborariaren ideia izan zen hastapenean. Hark aipatu zidan artilearekin zer bait egin litekeela, baina berak ez zuela denborarik, eta horrela hasi ginen gu kontua mugitzen”, azaldu du Zubillagak. Garai batean preziatua zen artilea arazo bilakatu da azken urteetan, inork ez baitu artilerik nahi izaten eta artzainek ez baitute jakiten zer egin lehengai horrekin. Egoera horri irtenbidea eman nahian abiatu zuten Iletegia proiektua.

HASTEKO, GALDUTAKO EZAGUTZAK BILDU

Lehen urteetan azterketa moduko bat egin aritu ziren proiektuaren bultzatzaileak, Frantziako Estatuko beste zenbait eskualdetan artilearekin zer egiten zuten ezagutzeko. “Batetik bestera mugitu ginen artilea nola lantzen zuten ikusteko, eta Euskal Herrian garai batean zer egiten aztertzen ere aritu ginen”, dio Zubillagak. Hainbat formakuntza egin zituzten proiektuan bete-betean sartu baino lehen, esaterako, artilea lantzen ikasteko, harrotzen, napak egiten, zizatzen... “Bertako artilea eraman genuen hango makinetan nola pasatzen zen probatzeko”.

Behin artilearen inguruko oinarritzko ezagutzak eskuratu eta gero, lanari ekin zioten. Isolatzailea egiteko makina ekarri zuten Sarako lantegira, eta horrek gauza asko erraztu die. Oraindik ez dute haria



egiteko makinarik bertan, dena den: isolatzailea egiten dute beraiek, eta hori Piriñoetako eskualde batera bidaltzen dute han haria egin dezaten. Gerora, hari horrekin tela moduko bat egin eta produktu ugaritarako erabiltzen dute: koltxoak, edredoi edo nordikoak, burukoak, eskuko poltsak, jantziak, espartinak...

TERNUA ARROPA MARKA ISOLATZAILERAK ERABILTZEN HASIKO DA

Duela hilabete inguru jakin genuen Ternua arropa marka bertako artilearekin egindako isolatzaileak erabiltzen hasiko dela. Bada, Iletegia proiektukoekin elkarlanean abiatu dute proiektua. Ilete-

giak orain arte Lapurdiko hiru etxalderi eta Nafarroa Behereko biri hartzen zien artilea, baina orain, ekoizpena handitzen doan heinean, gehiagori ere hartzen hasiko da. “Laborantza biologikoan edo kalitate zigitudunean ari direnei hartzen diegu, animaliak zenbat eta gehiago kanpoan ibili ilean ere asko nabari baita”.

Artilea mozteko garaian etxaldeetara bertara joaten dira Iletegiako kideak, eta baserritarrari buruko 1,20 euro ordaintzen diote. Gehiago saltzen duten neurrian laborariei ere gehiago ordaintzea dute helburu, dena den. “Artilea balorizatzea eta daukan garrantzia ematea da gure asmoa”, diote. ●



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



IRUÑEKO EKOMERCADO DE PAMPLONA

www.ekomercado.org



Nafarroako ekoizle ekologikoen merkatua

Lehen edizioa: martxoak 7

autobus geltoki zaharrean

9:30-14:00














AGENDA



KOOP FABRIKA saioak

 Izena emateko
info@koopfabrika.eus



Balantze sozialak eta adierazle sistema

 **Martxoak 2** 15:00etatik 19:00etara
 **Hernani** Iturrolan

Taldean kudeaketa eta parte hartzea

 **Martxoak 5** 15:00etatik 19:00etara
 **Hernani** Iturrolan

Ekintzailatza soziala genero
eta jatorri aniztasunetik



 **Martxoak 9** 15:00etatik 19:00etara
 **Hernani** Iturrolan

Bateratze saioa eta itxiera

 **Martxoak 12** 15:00etatik 19:00etara
 **Hernani** Iturrolan



ZULOAN liburuaz hitzaldia

Liburuaren egile Urko Apaolaza arituko da, AHTrik Ez Nafar Koordinakundeak antolatuta, AITAVoz egunaren baitan.

 **Martxoak 14** 16:00etan
 **Iruñea** Plazara! (Kale Nagusia 31)


BERDEA DA MORE BERRIA liburu aurkezpena

Liburuaren egile Onintza Irueta eta Gipuzkoako zaharren egoitzetako Aitziber Aranberri grebalaria arituko dira mahai-inguruan.

 **Martxoak 14** 17:00etan
 **Altzo** Batzarremuñon

EZ GARA NEUTRALAK liburu aurkezpenak

Liburuaren egile Gorka Bereziartua arituko da.

 **Apirilak 30** 11:30ean
 **Leioa** Unibertsitatean

LANDER ARRETXEA, NAHI DUZUN ARTE



Lander Arretxea 2019ko azaroan Edurne Azkarateri elkarrizketa egiten.

DANI BLANCO

Kultura ez da hemen bukatzen

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Elkarrekin egin genituen lehen pausoak ARGIAN Lander Arretxeak eta biok. Tira, udako kazetaritza praktikaldia egin genuen elkarrekin, berak hilabete batzuk lehenago egin zuen dagoeneko kolaborazioren bat edo beste hedabidearentzat. Zer diot kolaborazioren bat edo beste, 2012ko Kataluniako Diada indartsu haren jarraipena egiteko aukera izan zuen. Orain badao, uzten ditu ARGIAko kolaborazioak, "isilik egoten jakitea ere komeni da", bota dit irribarre bihurri batekin.

Aurreko alean argitaratu da EiTB Kulturaz-en inguruko erreportajea, bere sinadurarekin. Baina ez da azkenekoa izango. Apirilean gozatu ahal izango dugu bere estiloaz. Azpeitiko Dinamo Sormen Gunea hartu du gai.

Baina amaieraz baino, ibilbide honez galdetu diot, orain artekoaz eta etorkizunaz. Hitz politikak bota dizkit galdetu diodanean zer izan den ARGIA berarentzat: "Ikasteko aukera izan da. Kazetaritza dakidan gutxia ARGIAN ikasi dut: hasierako kolaborazioekin, praktiketan gero, eta gaur arte... Ez kazetaritza bakarrik, irakurle bezala ere mundu eta ikuspegi berriak hurbildu dizkit". Arretxea irakurri dugu ekonomia sozial eta eraldatzailearen bueltako gaietan murgilduta, gure belaunaldiak ezagutu duen krisirik gogorrenak izandako ondorioez


aritu ginen elkarrekin, prekarietatearen aurpegi hitza jartzen, eta azken urteetan gehiago sartu du muturra kultura arloan. "Oso pribilegiatua" sentitzen da, "interesgarria egiten zaidan jendearekin elkartzeko aitzakia izan dut; luze hitz egin dut haiekin; eta gero, jasotakoak ARGIAN zabaldu ahal izan ditut, beste batzuei ere interesatuko zaizkielakoan".

Lan gozagarriak asko omen ditu, baina badu ilusio berezia egin dionik. Gogora etorri zaio Maria Arnal musikari kataluniarrarekin izandako elkarrizketa. *45 cerebros y 1 corazón* (45 burmuin eta bihotz 1) diskoa gelditu ere egin gabe bueltaka zebilkien garaian suertatu zitzaion aukera, eta oraindik ere liluraturik azpimarratu dit: "Pertsona gutxi aurkitu ditut hark besteko argitasunez eta magnetismoarekin hitz egiten dutenak". Inork elkarrizketa irakurri nahiko balu, 2018ko apirilaren 22ko zenbakian topatuko du. Bartzelonako Sants auzoko kooperatiba sareari buruz egindako erreportajea ere kuttuna du: "Auzo oso bat eta dozenaka azpizgai arakatzeko aitzakia izan zen".

Ez doa Kataluniara bizitzera, hala dirudien arren. Maitasun berezi bat badio leku hari eta nahi gabe etortzen zaizkio oroitzen horiek burura. Pixka batean kolaborazio eta antzekoak uzteko erabakia hartu du.

Plazer bat zurekin aritzea, Lander. ●

Basque children ez ahazteko



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bilbo, 1937ko maiatzaren 21a. *Habana* lurruntzia portutik irten zen, haurrez beteta, Ingalaterrara bidetan. 800 bat bidaiarientzako tokia zeukan itsasontzian 3.840 haur, 80 irakasle, 120 laguntzaile, 15 apaiz katoliko eta 2 mediku pilatu ziren. Itsasaldi biziak are gogorragoa egin zuen bi eguneko bidaia.

Eusko Jaurlaritzak haurrei babesa emateko eskaera egin arren, hasieran britainiar gobernuak ezetz esan zuen, gatazkan esku ez hartzeko politika aitzaki. Katharine Stewart-Murray Atholkeko dukesaren eta beste eragile batzuen kanpainari esker, gobernuak azkenean haurrak lehorreratzea onartu zuen, baina berriro ere esku ez hartzeko hitzarmenari helduta, haurren egonaldia ez zuela finantzatzeko adierazi zuen. Basque Children's Committee (Euskal Haurren Batzorde) sortu berriak haur bakoitza zaintzeko asteko 10 libra lortu beharko zituen.

Baporea maiatzaren 23an iritsi zen Southamptonera. Portuan jendetza zegoen haien zain eta gainera hiriko kaleak banderatzoz eta apaingarriz bete zituzten harrerara egiteko. Edo hori pentsatu zuten haur gehienek; berez, Jurgi VI.a erregea 10 egun lehenago koroatu zuten eta haren omenezko apaingarri gehienak oraindik jaso gabe zituzten.

Ia 4.000 haurrak Eastleighera eraman zituzten, boluntarioek bi astetan, presaka eta ahalegin handia eginez, prestatu



HABANA ONTZIKO HAURRAK NAHIZ BOLUNTARIOAK EASTLEIGHKO ESPARRUAN, 1937KO UDAN.

zuten esparrura. Haur gehienak ez ziren luze egon bertan. Udan zehar, pixkanaka, Erresuma Batu osoko "kolonia" eta etxeetan banatu zituzten. Irailaren erdialdean Eastleighen ez zen euskal haurrik geratzen, talde erlijiosoen, sindikatuen eta beste talde eta norbanakoen emandako laguntzari esker.

Ordurako, Iberiar penintsula iparraldeko gune nagusiak frankisten esku zeuden eta haurrak Euskal Herrira itzultzeko prozesua abiatu zen. 1939an, Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, 400 euskal haur besterik ez ziren geratzen Erresuma Batuan. 16 urtez gorakoei itzultzeko edo geratzeko aukera eman zitzaizkien. Txikiagoek ezin izan zuten erabaki; gurasoak hilda edo giltzapean zeudelako geratu behar izan zuten han. 1945ean 250 bat ziren eta gehienak bizi osorako geratu ziren bertan.

2002an, *Habana*-ko haur horietako baten bilobak, Natalia Benjaminek, The

Association for the UK Basque Children edo BCA'37 UK erakundea sortu zuen, oraindik bizirik zegoen haur horietako baten laguntzaz: Helvecia Aldasoro. Elkartek *Habana*-ko euskal haurren berri zabaltzea du helburu, batez ere hezkuntzan. Ildo horretan, iazko udan *The Basque Children of '37* izenburuko erakusketa jarri zuen abian, The Museum of Childhood Ireland proiektuarekin batera. Erakusketa Europako Batzordean egon zen ikusgai uztailean; abuztuaren Corkera eraman zuten eta gero Galway, Sligo, Leitrim, Derry, Belfast, Warrenpoint, Drogheda eta Irlandako beste hainbat herritan ibiliko da datoren uztaile bitartean.

Helvecia Aldasoro 2014an hil zen Nottinghamen, 91 urte zituela, berari eta *Habana*-ko beste ia 4.000 haurrei gertatutakoa ez zela galduko ziurtatuta. ●



STANFORD UNIVERSITY

Erromatar inperioko nabigatzailea

Stanford unibertsitateko Walter Scheidel eta Elijah Meeks-ek Orbis jarri dute abian (orbis.stanford.edu), Erromatar Inperioko multimedia atlas bat hainbat punturen arteko distantzia eta denbora kalkulatzeko duena; antzinaroko Google Maps modukoa, alegia. Urte sasoia, biderik merkeena, laburrena eta azkarrena edo garraio bideak hautatzeko aukera ematen du. Pompaletik Erromara

joateko, adibidez, 23 egun beharko genituzke aukera merkeena hartuta eta pertsonako 768 denario ordainduko genituzke, gurdian bidaiatzeko; gari kilo bakoitza garraiatzeko, aldiz, 12 denario eta erdi ordainduko genituzke. Iruñetik abiatu eta itsasontzirik hartu bahiko ez bagenu, aldiz, bidaia asko luzatu eta garestituko zen: 54 egun eta erdi, eta 2.134 denario. ●

Punto de Vista

Festibalaren 14. edizioa

ERREALITATEAREN BIDEZ KONTATUTAKO ISTORIOAK

Martxoaren 2tik 7ra zabalduko dizkio ateak Iruñeak zinema dokumentalari. Gertuko eta urruneko obrak bilduko ditu Punto de Vista jaialdiak ikuspegi kritiko, sortzaile eta esperimentalez. Aste osoan egongo dira ikusgai lan ugari, baita zinemarekin zerikusia duten formakuntza saioak ere Baluarten, Iruñeko Filmategian, Uharte Arte Garaikideko Zentroan, Iruñeko Planetarioan, Gayarre Antzokian eta Katakraken.

 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO



1993. urtean sortu zen Iruñean bideo-sorkuntzaren inguruko jaialdi bat, ikus-entzunezkoan sormena lantzen zuten filmen bul-tzatzaile zena, eta haren ondorengoa da Punto de Vista. Jaialdi hartan bazegoen dokumentalari eskainitako atal oso bat, eta horren bilakaera da aste honetan hamalagarren ediziora iritsi den nazioarteko jaialdia. Dokumentala topagune bezala planteatzen da bertan, generoaren konbentzioak gainditzeko eta berritzeko borondatez ari diren errealizadoreek elkarren bilaketak ezagutu eta ikusle-goarekin partekatu ditzaten. Filmetan dagoen konpromiso etikoa baloratzea da jaialdiaren premisetako bat, antolatzailen ustez arte adierazpenak berak ere eduki behar baitu prozesu koherentea. Bertan lehiatzen diren lanek errealitatera hurbiltzeko moduak proposatzen dituzte, ez-fikziozko zinemaren ospakizuna da jaialdia.

Nazioarteko filmez gain, badira euskal zinema dokumentalari eskainitako espazioak ere. Aurten, esaterako, Oskar Alegriaren *Zumiriki* (2019) lanak inauguratuko du jaialdia, Nafarroako Pirinioetako basoan ezkutatu den naufrago

baten inguruko filmak. Sail Ofizialean Gerard Ortín zuzendari katalanak zuzendutako *Reserve* filma eskainiko dute, zeina Pirenaika eta Tractora Koop euskal ekoiztetxeek ekoitzi duten. *Reserve* otsoaren desagertzearen inguruan hausnartzen duen 27 minutuko pieza da, protagonista duen animalari zeharka gerturatzen zaiona. Otsoentzako tranpen hondarren bidez, Ameriketako Estatu Batuetatik inportatutako harrapakari gernalaren bidez, hegazti sarraskijaleak elikatzeke hondakindegia bidez eta animalien erreplikei tiro egiten dieten arkularien bidez, lurralde bateko oreka ahularen inguruko kontakizuna erai-ki du Ortínek, eta gizakien eta gizaki ez direnen arteko harremanaren inguruan galdekatzen du. Beste herrialdeetan hautatuak izan diren filmekin batera lehiatuko da sari nagusien bila.

Ildo berean, X-films deritzon atalean, Maddi Barberrek urtebetean landutako *Gorria* proiektua erakutsiko da. Punto de Vistak pasa den urtean saritutako egitasmoa da, zuzendariak 16 milimetroko film-euskarrian gauzatu duena. Barberren lanak bide ezberdin batetik heltzen dio Ortínen bilaketarekin zerikusia duen

gaiari. *Gorria*-k fokua jartzen du Laka-ben egiten den artaldean zaintzan eta hilketan, zeinak alternatiba proposatzen dion animalien industrian nagusi den gauzak egiteko moduari. Herri baten sinesmenetara eta erritualetara hurbiltzea da obra, eta beste espezie batzuen kudeaketaren dudak eta kontraesanak gorpuzten ditu bere irudietan. Bi zinemagileen lanak elkarrizketa gisa beha daitezke, bai ikusle-goarekin, bai inguruarekin, baita elkarren artean ere.

Gainera, Paisaia sailean, Ione Atenea, Arnau Padilla, Peru Galbete, Lur Olaizola, Ainhoa Gutiérrez eta Jesús María Palaciosen filmak ere eskainiko dira aurten. Hego Euskal Herriko dokumental ekoizpenari dagokionez, pelikula berri eta ausartenak biltzen dituen saila da Paisaia, arakatzeko estetiko eta narratiboaren ariketa irekitzat planteatzen diren obren lagina. Proposamen ausartak baloratzen ditu jaialdiak, bilaketari garrantzia ematen diotenak, dokumentalaren aitorra bera zabaltzen lagunduko dutenak. Aurten, memoriaren kontzeptuarekin loturiko galderak planteatzen dira sail horretan hautatutako filmetan. Zinemagile bakoitzak hainbat adiera –memoria



PROPOSAMEN BERRITZAILEAK

Oskar Alegriaren *Zumiriki* filmak (ezkerrean) irekiko du aurtengo Punto de Vista festibala. Begirada zinematografiko diferentea duten lanek izango dute protagonismoa aurtengo edizioan ere, Ione Ateneak zuzenduriko *Enero* bezalako filmekin.



METRAJE LABURREAN. Maddi Barberren *Gorria*, Peru Galbeteren *Ura sartu zen barrura*, Lur Olaizolaren *Xulia* eta Gerard Ortínen *Reserve* izango dira aurtengo Punto de Vista jaialdian ikusia ahal izango diren euskal laburmetraietako batzuk.

intimoa, familiarena, kolektiboa, historikoa- landu ditu eta, bakoitzak bere adierazpen estetikitik edo narratibotik, gizakiaren behar jakin bat aztertu du: memoria kontakizun moduan finkatzeko premia, edo filmatzearen eta idazketaren bitartez manipulatzeko beharra. Sailak bi proiektzio proposatzen ditu lanak ikuskatzeko: batetik, Ione Atenearen *Enero* film luzea; bestetik, Padillaren *Para ver lo que quiero ver necesito más que los ojos*, Galbeteren *Ura sartu zen barrura*, Olaizolaren *Xulia*, Gutiérrezen *Medvedek* eta Palaciosen *Labo* laburmetraiak biltzen dituen proiektzioa.

Galbeteren bigarren laburmetraia da *Ura sartu zen barrura*. Musikari gisa ere aritzen den zuzendari honek Uharte zentroan garatu du lana, artistentzako eskaintzen duen espazioan. Musikaren eta irudien arteko zuzeneko espermentazioa izaten hasi zenak hamasei minutuko filmean aurkitu du, azkenean, oreka. Txikitan bere etxean jasandako uholde batek abiarazten du proiektua; uriola bat, zeinetan etxeakoak bizirik atera arren, etxearen behealdean zituzten oroitzapen asko galdu zituzten. Diapositiba batzuk besterik ez zituen berreskuratu aitak, banan-banan garbitu zituenak. Horrela, uraren arrastoak emandako esanahietan murgiltzen da Galbete, galdera batekin: ez al dute hobeto kontatzen iragana gertakizunak beren azalean bizi izan dituzten argazkiek?

Tarragonako Francisco Franco Uni-

bertsitate Laboralean oinarritzen da, bere aldetik, Jesús María Palaciosek jaialdian erakutsiko duen obra. *Labo* izendatzen duen lanak paseo bat proposatzen du unibertsitatearen eraikinaren memorian barrena. Bi zentzutan: erai-kuntzak dituen korridoreetan barrena arakaten du eta, era berean, eraikin horietan bizi izan zirenen oroitzapen-eta gerturatzen da. Filma gure iraganera joateko bidaia da, gure orainaldia eta etorkizuna hobeto ulertu ahal izateko.

**Dokumentala
ulertzeko bestelako
modua proposatzen du
Punto de Vista
jaialdiak eta Euskal
Herriko zinegile
berritzaileen lanak
ikusteko aukera
eskainiko du aurtengo
edizioan ere**

Gaiak, gainera, zuzenean interpelatzen ditu azkenaldian Espainiako diktaduraren buru izan zenaren inguruan mugitzen ari direnak. Lana 2019ko Kimuak katalogoaren parte da eta Documenta Madrid jaialdian estreinatu zen duela ia urtebete. Zuzendari donostiarrak hiru film labur

landu ditu honen aurretik, eta metraje luzean ere aritu da, *Distantziak* 2015eko talde-ekoizpenean hain zuzen ere.

Ione Atenearen *Enero* filma da saileko film luze bakarra eta zuzendariaren lehen pelikula da. 69 minutuko lanak zahartzaroaren erretratu intimoa egiten du, laurogei urte pasatxo dituzten bi emakumeren historien bitartez: zinemagilearen bi amonak. Kamerak zahartzen ari diren gorputzen materialtasuna eta keinuak jasotzen dituen bitartean, emakumeek beren bizitzaz, denboraren iragateaz eta heriotzaz hitz egiten digute. Lan honen prozesuan, zinemagilea bere amonekin batera joan zen emakume bakoitzaren sorterrira. Bidaia batean Galiziako kostaldeko itsasora joan zen, Manolitak handik emigratu baitzuen duela berrogei urte baino gehiago; beste bidaietan berriz, Nafarroako Lerga herrira. María Jesús han jaio zen, eta hara itzuliko omen da hiltzen denean. Zuzendariak dio jakin nahi zuela nola bizi daitekeen norberaren denbora naturala amaitu denean, eta bere amonentzako amodiozko gutun gisa ulertzen du filma. Zoritxarreko izan daitekeenari alde positiboa bilatu nahi izan dio Ateneak, eta aldi berean denboraren iragatearen inguruan pentsatu. Ez da lehen aldia zuzendari eta artista honek zahartzearen eta eraldatzearen inguruko lana egiten duena, 2016an Nafarroako Artista Gazteentzako diru-laguntza jaso baitzuen 24/07 obrari esker: bertan, aitona izandakoa-



ren alzhemerrarekin lotutako gaiak bildu zituen, gerora liburu bezala argitaratuko zituenak. Dokumentala Hiruki Filmakek ekoizten du, Ateneak Garazi Erbururekin eta Marina Lameirorekin partekatzen duen ekoiztetxeak.


Lanen eta errealitatearen arteko lotura dira film hauetan aipagarri, eta uste dut hori dela gizartearekiko garrantzitsu bihurtzen dituenak. Beharbada, historia hauek ezin dira beste modu batera kontatu. Dokumentuaren egiazkotasunarekin jokatzeko du sarridan lan mota honek, hori bera zalantzan jarri eta fikziozko gertakariekin filma osatzeko. Aspaldi hautsi zen kamera batek “aurrean dagoena bere horretan” filma dezakeenaren mitoa, eta atzean utzi ditugu –eskerrak– XIX. eta XX. mendeetan zehar herrialde “exotikoetara” egindako an-

tropologoen bidaietatik ekartzen zituzten interpretazioak itsu-itsuan sinesteko garai bateko joerak. Egun, errealitateari marko bat ipini eta nondik begiratu proposatzen du bere buruaz kontziente den dokumentalak. Zinegileak etikoki jardutea zor dio aurrean duenari, eta beharra sentitzen du ikuslegoari argitzeko nor den kontatzen duena, eta zein izan den bere harremana film horrekin. Finean, jaialdiaren izena daraman ikuspuntua da film dokumentalek eskaintzen dutena. Memoriaren kasuan, gainera, ezagarrri garrantzitsua da errealitatearekiko harreman hori, euskarri bat izan dezagun haren arabera kokatzeko. Egiarik ez dago, helduleku bat baizik.

Dokumentalaren gaur egungo egoera ez da, bortxaz, beti horrelakoa izan. Filmak eta dokumentalak elkarren artean

bereizten ditugu egunerokoan, batzuk besteen barnean sartu ezinik. Pelikulak denbora pasarako entretenigarri dira; dokumentalak, informazioa –gehiegiematen duten ikasteko tresna –aspergarriak–. Jaialdi honek, Euskal Herrian eta mundu mailan lanean ari diren zinemagile askok bezala, bestelako harremana proposatzen du: ezagutu, gozatu eta pentsatzeko aukera eskaintzen duen era bat. Bien artean topa liteke, agian, konbinaketa ona, errealitatearen bidez istorioak kontatzeko. Gure baitan dago, hortaz, dakartzagun aurrejuzguak dese- raikitze gaitasuna.



Honen inguruan hausnartzeko gonbita luzatzen dizuet, Iruñeko areto nahiz kaleetan martxoaren 2tik 7ra bitartean. Ireki dezagun, behintzat, eztabaidarako tartea. ●



bardoak

2020



Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa
Urtarrilaren 31tik Martxoaren 28ra

<p>ATARRABIA. Etxebeltza elkarte. Martxoak 6 ostirala. 19:30ean Sakaña - Atekaberts komeni</p> 	<p>TAFALLA. Aguazon Peña. Martxoak 7 larunbata. 18:00etan Hego haizea - Lamixene</p> 
---	---



www.bertsozale.eus

Antolatzailea Laguntzailea



Espektro bat euskal letretan (II)



ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA MARI LUZ ESTEBAN

PAMIELA, 2019

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Aitortu nuen *Ezagutzaren matazak* liburuari egindako kritikan: ez naiz ni dramatikoegi jartzekoa. Baina berriro dramatiko jarriko banintz, “espektro bat dabil euskal letren plazan” esanez hasiko nuke baita iruzkin hau ere –oraingoan, Mari Luz Estebanen *Andrezaharraren manifestua*-ri buruz hitz egiteko–.

“Bere buruaz beste... bat egitea” praktika literario bilakatzen duena da euskal letretan dabilen espektroa –esanez, jarraian argituko nuke misterioa, orduko hartan bezalaxe–. Gainera, gaurkoan, Anariren *Ametsen eraiste neurtua* kantari lapurtuko nioke adierazpidea –zuga, irakurle, dramatismoaren efektua areagotzeko, noski–. Alta, ez dago dramatiko jartzeko beharrik eta agian adibide

xinple batzuk aski dira esan nahi dudana adierazteko.

Andrezaharrak zera direla irakurri daiteke liburuan, “*Emakumeari ezetz esa(te)n dioten emakume burujabea[k]*”. Horixe da hain justu, “bere buruaz beste... bat egitea”: *emakumea* hil emakumea sortzeko. Emakume berri bat zapalkuntzei muzin egingo diena; subjektu berri bat eraikiko duena.

Andrezaharra beraz, bere buruaz beste... bat egiten saiatzen den subjektua bada, ez da gisako figura poetiko-politiko isolatua euskal letretan. Antzeko lanketa literarioak irakurri ditzakegu –edo horixe proposatu nahi dut behintzat hemen– Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia*-n, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin*-en, Danele Sarriugarteren *Azala*

erre-n, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat*-en, eta baita, erarik mingarriean, Kattalin Minerren *Moio*-n ere.

Agian merezi du pentsatzea ari dela zerbait gertatzen euskal letren plazan eta zerbait horren baitan, *Andrezaharraren manifestua*-k kokagune bereizitiko hitz egiten duela. Izan ere, adineko emakumeari egiten dio lekua, iraungitze programatuaren data gainditu duenari, ero gisa erotismoz bizi denari, edertasunaren kanona zalantzan jartzen duenari, erromantikotasunak balio ez dionari, ikusezintasuna eta pobrezia bizi duenari. Eta bazterketa guztien ifrentzuan askatasunari, subertsioari, desobedientziari egin nahi dio bidea *emakumea* ez den emakumeak; oraindik etortzeko dagoenak. ●



MUSIKA

Makinak, mezua eta gordintasuna kantuaaren alde



LOBOTOMIAK REVOLTA PERMANENT

BAGA-BIGA

IKER BARANDIARAN

Barakaldoko talde gazte eta aldi berean baterano honen sortzeak eta izateak oinarri handia dauka hip-hopean, izan ere, taldeko kideak 121 Krew, Norte Apache, Herri Oihua eta beselako taldeetan ibilitakoak dira. Oso gazte hasi ziren katean, eta ordutik ez diote inoiz utzi kontzientzia zabaldu eta borrokatzeari; are gehiago, beti estimulu eta sorkuntza bide desberdin asko berengantzeko prest egon dira eta daude.

2014an bestelako ukitu aberatsa eman nahi izan zioten taldearen emaitzari: hip-hopa eta elektronika ezkonduz *Genesis* (Gaua) diskoa argitaratu zuten Aitor Abioren laguntzarekin eta hor datza aldaketa nabarmenaren hazia: Pilt

eta Matxura taldeetan ibilitako eta Gaua estudioko arduradun Abio zuzeneko piztiari esker irauli zuten rap eta hip-hopean hain ohikoa den ahotsaren hegemonia, eta giro dantzagarri, batez ere gordin eta pisutsuei rapa batu zioten tarteka. 2016an grabatu zuten *Kimera* (Gaua) izeneko bigarren diskoa antzeko ildoan; eta 2018an *Ultravioleta* (Gaua) lan luzeak beste jauzi bat ekarri zuen, diskoak batzen dituen zortzi kantak Espainiako Estatuko zortzi soinu ekoizle desberdinekin grabatu baitzituzten. Eta diskoari dokumental bat gehitu zioten gainera.

Orain *Lobotomikak* lana dakarte beso azpian. *Zulutzen* elektronika lasai baina misterioitsua da. *Lobotomia* Steve Albiniren Big

Blacken urgutzia, rapa eta erdi tempoak batzen dituen pieza kañeroa. *R-k* dantza egiteko elektro-rocka eskaintzen digu. *Aukerak* techno ilun eta musika industrialaren arteko lasterketa, garatuz doana. *Mundo roto* –guztiak bezala euskaraz– elektronika ilun eta indartsuari rapeatua. *Gorrotua* makinaren eta eskola zaharreko hip-hoparen arteko topagunea. *Garrasi* Maria Redondok borobildutako elektro-techno-pop pieza ederra. *Moralaren salbatzaile* eskola zaharreko hip-hopari keinua. *Mailua*-k erakutsi digu raggamuffina bortitza izan daitekeela, baita zikina ere. *Adikzio berri bat* da oinarri metaleroena duen hip-hop kanta itsaskorra. Eta, azkenik, 3,1416 gurpilaren ardatz eta espirala. ●



Nahikoa eta soberan

AMETS ARANGUREN KOLDO EIZMENDI

Heldu gara Miarritzera eta Atabalen sartu orduko teloneroak azken kanta jotzen ari dira. Amalgama konpaseko kanta da, kostatu zait harra-patzea. Publikoko aurpegi ezagunei eskerrak eman eta bero utzi dio oholtza Pelax talde donostiarrek hirukote baionarrari. Iskina banatan jarri dira Jurgi eta Xan, Felixi normalean bateria jotzailerari ematen ez zaion aitortza emanez, edo hori da nik interpretatu dudana. Gustatu zait keinua.

Disko berriko lehen kantarekin eman diote hasiera, publikoak espero bezala. Akorde bakoitzaren *tempo*arekin batera zihoazen argi harrigarriekin egin dute indartsuago hasierako agurra. “Komunitaterik ez da elkarren ardurarik gabe” dio hurrengo kantak, ordurako, gaudiko publikoa komunitate bihurtua.

Ibilbide minimo bat egin duten taldeen antzera, bizkor ibili dira hauek ere eta giroa are gehiago berotzeko xedez,

aurreko diskotako kanta ezagun batzuk tartekatzen hasi dira. Disko berria sobera ongi ezagutzen ez duten aspaldiko zaleak aretoko komunitatera ekarri ditu honek.

Gitarra elektrikoak, baxuak eta bate-riak osatzen duten taldeak ere uki ditza-ke azaletik barrurako kontuak. Astebete lehenago zenduriko lagun minaren seme eta amari babesela helarazi eta hari eskaini diote hurrengo kanta, *Zugzwang: xakean ematen den egoera, zeinetan mugimendu orok jokalariairen egoera kaltetzen duen.*

Kontzertuko une hunkigarriaren ondotik festarekin jarraitzeko gonbitea egin digu Xanek eta diskoteka bihurtu dute Atabal: argi guztiak publikoari zuzendurik, oholtza beltz. Orduan jo dituzte abesti ezagunenak.

Bere lanarekin jarraitu du baxu-joleak eta taldearen eta publikoaren arteko harreria eraitsiz mintzatu da, Atabalen aurreko aldiaren zirenen bikoitza ginela esanez eta eskerrak emanez, hala erreplikatu

WILLYS DRUMMOND
MIARRITZEKO ATABALEN

dutenei nola lehen aldiz etorri garenoi. Etxean ari da jokatzeko hirukotea eta, hola-koetan, ez da eskaintzarik falta, aspaldiko lagunendako joan da hurrengoa: *Anai*. “Ongi pasatzen da?” hartu du hitza berriz Xanek, “nahiz eta poperoak izan?” gehitu du publikotik oihukaturiko komentarioari tonu trufatien erantzunez.

Giroa lasaitu da disko berriko kanta indartsuenetakoaren momentua heldu denean. Ez dut gezurrik esanen, Anari agertuko zelakoan nintzen. Bukaerarako utzi dituzte betiko beste *tematza*r horietako batzuk, hauek ere lagunei eskainiak.

Errege Magoek ekarri zizkidaten sarrerak eta gutuna idatzi ziena etorri da nirekin, emanaldia gozatzeko esperantza handirik gabe. Kontzertua bukatu bezain pronto biratu dut burua berarengana, ezer esan gabe baina begiradarekin galdetuz; “*hauek Berri Txarrakek baino gehiago molatzen dute*” esan dit. Nahikoa eta soberan. ●

Ainara Castellanos Rubio

IKERLARIA IKERBASQUEN



IKERKETAREN "FRIKIA"

Hala dio berak, pasioz bizi baitu zientzia. Lanordu asko exijitzen duen jardueraren arren, "niri merezi izan dit" dio irribarren handi batekin. *Science* aldizkarian argitaratzea lortu zuen 2016an, urtebetez artikulu bera ontzen eman behar izan bazuen ere, eta oraintsu jakin du UEG Rising Star Award 2020 saria irabazi duela, ikerlari profesional hasi berrien kategorian. 15 urte daramatza zeliakiaren ikerketan murgilduta.

"Oso polita litzateke egiten duguna jendeari erakustea, baina gehienetan ez daukagu denborarik"

Ainara Castellanos (Portugalete, 1982) urrian Amsterdamen (Herbehereak) arituko da zeliakiaren inguruan egiten duen lanaz Gastroenterology Week-en; gastroenterologiaz egiten den ekitaldirik garrantzitsuen da. Guk, ordea, glutenaren inguruko artikulu bat amaitzen harrapatu dugu EHUko Zientzia fakultatean, bunkerra deitzen duten eraikinean. Hantxe ari da lanean, tesia egiten ari diren bi ikerlariaren laguntzarekin.

MARIJO DEOGRACIAS HORRILLO **HODEI TORRES**

Ikerlari hasi berrien saria, zuk?

Hasiberria, akaso, ez, baina hori ere izaten da norekin alderatzen zaren... Normalean sari hauek, ikerlari gazteei sariak, 40 urtetik beherakoei ematen dizkigute. 2005ean amaitu nuen karrera eta orduan hasi nintzen ikerketa honekin; beraz, joan dira hamabost urte!

Zerk ekarri zintuen zeliakiaren inguruan ikertzerara?

Kasualitateak. Karrera amaitzen ari nintzela iragarkia ikusi nuen fakultatean: "Tesia egiteko ikasle bila gabiltza Gurutzetako ikerkuntza taldean". Nire bizitzarekin zer egingo nuen ez nekienez, aurkeztea erabaki nuen eta aukeratu egin ninduten. Ikerkuntza lerroa zeliakia; beraz, ez nuen aukeratu. Gaur egun, agian, *gluten free* terminoa gehiago entzuten da, baina orain dela hamabost urte... Ez nekien gaixotasun zeliakoa zer zen ere!


Duela lau urte itzuli zinen Euskal Herrira. Ikerlarien patua da kanpoan erakustea norberaren

balioa?

Uste dut oso garrantzitsua dela kanpora joatea. Tesia egiten nabilela lau hilabetez egon nintzen Finlandian. Han ikusi nuen ze desberdina den lan egiteko era. Ez nabilkizu Ameriketako Estatu Batuei buruz, hura zorame-na baita. Baina ikerketarekin jarraitu nahi banuen argi nuen kanpora joan beharra izango nuela ideiak zabaltzera, bestelako teknikak ikustera... Tira, ni pixka bat frikia naiz, zientzia zale amorratua. Nire lana izateaz gainera, nire hobya ere bada. Ez da onena, batez ere etxean ere buruari eragiten aritzen naizelako, baina horrela da. Bultzadarik handiena eman didana kanpora joatea izan da. Badago jendea planteatu ere egiten ez duena. Bakoitzaren hautua da. Joan nahi ez baduzu ez joan, baina unibertsitatearen endogamia existitzen da eta lotsagarria da, negargarria.

Kanpoan lortu dituzu aitortzarik handienak... *Science* aldizkarian ere argitaratu zenuen.

Gailurra ukitu nuen orduan! Baina



"OSO POLITA LITZATEKE EGITEN DUGUNA DIBULGATZEA, JENDEARI ERAKUSTEA, EGITEN DUGUN LANA IKUSGAI IZATEA, BAINA GEHIENETAN EZ DAUKAGU DENBORARIK".

lehenengo ezezkoa izan zen; bost erre-bisio egin genituen. Manhattaneko tren-bidera botatzekotan egon nintzen, egin kontu. Baina ondo ateratzen bada, pena merezi du. Argitaratu zuten, kontratua lortu nuen; beraz, primeran.

Beka bati esker itzuli zinen.

Juan de la Cierva ikerketa-bekarekin, [Espainiako Zientzia eta Berrikuntza] ministerioaren urte bikoia. Konbentzitu ninduten eskolak emateko lau hilabetez; *never again!* Itzulerarik txarra izan zen. Bost urte AEBetan, laborategian jota-su, eta hona etorri eta eskolak ematen, euskara erabat ahaztuta nuela, nirea ez zen gai batekin, nire adinekoak iruditzen zitzaizkidan ikasleekin... Shocka izan zen.

Ikerketen berri artikulu bidez ematen duzue, baina dibulgazioaren helburua ez da diluitu proiektuak lortzeko borroka horretan?

Asko. Gehienok gure ikerketa-lerroan gaude fokatuta. Gainera, badago beste kontu bat: dena egiten da presaka. Kontratu luzeena bost urtekoa da, baina zenbat denbora behar duzu ikerketa bat

aurrera ateratzeko? Gutxienez lau urte eta beste bat publikatzeko? Oso polita litzateke egiten duguna dibulгатztea, jendeari erakustea, egiten dugun lana ikusgai izatea, baina gehienetan ez daukagu denborarik.

Nola dago ikerketa Euskal Herrian garatzeko aukera?

Oso zaila. Diru gutxi inbertitzen da. Ikerbasque da gaur egun dagoen aukerarik onena, baina bost urterako da. Kontratu lortu nuen urtean hirurehunik gora lagun aurkeztu ginen; 15-20 eman zituzten. Ikerbasquen asmoa da ikerlarion jarduera egonkortzea: bost urteko kontratuaren ondotik, mugagabeko motarekin jarraitzea. Baina badu bere alde txarra: kontratuarekin zatoz, baina ikerketarako dirurik gabe. Horrek suposatzen du proiektuak eskatu behar dituzela ministeriora, Jaurlaritzara...

Soldata bai, baina bestelako baliabiderik ez?

Hori da. Gurea ez da *starting-package* bat Madrilgo Erkidegoan bezala. Hura ere ez da perfektua ze hainbeste diru

ematen dizute, doktoranda bat kontratatzeke ere erabil zenezake, baina hark ezin du idatzi, eta zuk idazten baduzu ezin duzu esperimenterik egin, eta idatzi ezean dirurik ez esperimenterik... Dena dela, nik disfrutatzen dut lan honean; niri neuri merezi dit.

Ze puntutan zaude zure ikerketan?

Lerro bitan fokatuta nago. Beti esan izan dugu DNAn zabor-guneak daudela; gune horietan gauza garrantzitsuak gertatzen direla, baina ez da askorik ikertu. Hor aukera bat ikusi nuen. DNA zabor horietan aurkitu izan dira hanturazko gaixotasunekin zerikusia duten genomak eta ikusi da horrek kodetzen dituela RNAk; alegia, badaudela, molekula batzuk oso inplikaturaren garapenean. Hori oinarrizko zientzia litzateke, baina dirua behar dudanez proiektuetan, hasi naiz batez ere hesteko hantura gaixotasunak listuan diagnostikatzeko metodo batean lanean. Gaixoei listua hartu eta geneak aztertzen ditugu. Horrez gainera, ezagutzen ez nuen beste gaixotasun batekin ere banabil: esofagitis seziofilikoa, esofagoaren hantura bat da. ●



Koronabirusak Iturgaizek baino boto gehiago lortuko luke apirileko hauteskundeetan



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hauteskundeetako hautagaien inguruko inkesta publikatu du Siatxekor soziologia kabineteak. Alderdien zerrendaburu bakar batek ere ez du herritarren oniritzirik, baina gehienak hamarretik bost puntu lortzetik gertu geratu dira, Carlos Iturgaiz PPko lehendakari gaita izan ezik. 7.500 laguni egindako galdeketa arabera, hautesleen %98k Koronabirusari lehenago emango lioke botoa Itur-

gaizi baino. Ikerne Zenbakitegi soziologoak esplikatu duenez, boto-emaile gehienek dagoeneko ezagutzen dituzte Koronabirusaren arriskuak. "Aldiz, Iturgaizek zer egingo duen inork ez daki eta horrek eragin negatiboa dauka boto-asmoan", azaldu du. Inkesta ikusirik, Pablo Casado Iturgaizen alternatiba bila hasi da: zenbait iturriren arabera, Enriqueta Benito bandan beroketak egiten ari da jada. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Justin Bi...etan jarrai



Lehen eta orain



CORONA EDATEN DUEN JENDEAK BETI ERAKUTSI DU UMORE SENA.

“Corona” garagardoa ez dela garagardoa demostratu du koronabirusari buruzko ikerketa batek

Koronabirusak eragin duen izua dela eta, “Corona” markako garagardoaren salmentak %67 egin du behera mundu osoan, YouGov enpresak egindako ikerketaren arabera. “Datuek ez gaituzte ezustean harrapatu”, azaldu dute zientzialariek. “Harrigarriena da kontsumitzaileak nola ez diren lehenago konturatu benetan zer edaten ari ziren. Noski ‘Corona Extra’ birus kutsakor bat dela!

Terraza batean eseri eta limoi puska ziztrin bat sartzen zaion garagardoagatik 4 euro ordaintzea oso cool da, baina denbora kontua zen jendeak ikustea hori ez dela ez zerbeza ez ezer, ez bada ba.... hori, Covid-19 birusaren aldaera komertziala. Gaur arte ez badu inor hil da 80 urtetik gorako inork edaten ez duelako, Javier Madrazok eta Jesus Lozak baka-rik. Adin-tarte zaurgarriena salbu da”. ●

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



**Ezagutu
Euskal Herriko
animaliak!**

Euskal Herriko lurralde banatako **zazpi ekosistema** eta **42 animalia** ezagutuko ditugu. Karta hauekin **5 jolas ezberdin** egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.



Edukiak
Iñaki Sanz Azkue
Biologoa

Ikuspegi pedagogikoa
Lore Erriondo
EHUko irakaslea

Marrazkiak
Eñaut Aiertzaguen

**AZOKAN
SALGAI!**
15€*



**POSTERRA
SALGAI!**
6€*